

ADMINISTRAZIOA  
EUSKARAZ

IVAP  
HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

 EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

# Zalantza- -dantza



**Zalantza-  
-dantza**



# Zalantza-dantza

IVAP  
HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA



## SARRERA

Nola idatzi behar da: *bidai bat* ala *bidaiia bat*, *dohan* ala *doan*, *gutxi gora behera* ala *gutxi gorabehera*? Zein hitz proposatzen du Euskaltzaindiak: *artxibari* ala *artxibozain*, *kotxe* ala *auto*, *sailordetza* ala *sailburuordetza*? Hauetatik zein da zuzena: *lagunduko dizut* ala *lagunduko zaitut*, *lau milana pezeta* ala *launa mila pezeta*? Esaldi jatorrak al dira hauek: *alkateak paper garrantzitsu bat jolas-ten du udaletxean*, *dekretuek aldaketa ezberdinak jasan dituzte*?

Nork ez dizkio noiz edo noiz horrelako galderak egin bere buruari, testu baten aurrean dagoela? Gehienok, ezta? Bada, horientzat idatzi dugu liburuxka hau, hain zuzen ere, eguneroko lanean sortzen zaizkigun dudak argitzeko asmoarekin.

Zalantza-dantza handia bildu dugu hemen: ortografiari, hiztegiari, morfologiari eta joskerari dagozkienak, eta modu egokian antolatu nahian, hurrenkera alfabetikoan jaso ditugu. Badute azalpen labur eta ulergarri bana, ez baita gure asmoa gramatika arauemaile bat egitea edo guk baino gehiago dakitenei (asko baitira) ezer irakastea. Beharrezkoa iruditu zaigunean adibideak ere sartu ditugu, azalpen horien osagarri, gehien-gehienak administrazioko benetako idazkietatik ateratakoak.

Barruko edukiari buruz, bi ohar. Sarrera batzuetan hauek aurkituko dituzu: “erabili euskara batuan, euskara baturako erabili...”. Horiek ez dira, ezta gutxiago ere, gure aginduak, Euskaltzaindiaren *Hiztegi batuan* jasotakoak baizik. Beste alde batetik, askotan izartxodun (\*) hitz edo adibiderik topatuko duzu. Zer esan nahi du horrek, izarra duten guztiak gaizki daudela? Ez. Horrekin esan nahi dugu, oro har, berba edo esamolde horiek desegokiak direla; kontuz, ordea!, desegokitasun horien artean aldeak daudelako. Batzuetan, Euskaltzaindiaren argitalpenean eta gramatiketan gaitzetsitako kontuak jaso ditugu, eta horiek argi eta garbi dira baztertzeoak; beste batzuetan, berriz, han-hemen salatu izan diren erabilera berri-okerrak eta erdarakadak, eta horiekin ezin Aita Santua baino santuagoa izan. Beste era batera esateko, kalko eta erdarakada horiek ez dira denak maila berekoak; are gehiago, batzuk hain daude sartuta gure hizkuntzan, akaso euskararen kalterako baino haren osagarri baitira. Zure esku gelditzen da, hortaz, horiek onartzea, zalantzan jartzea edota bazter uztea.

Honelako lan xumeetan gertatu ohi denez, ezin izan dugu dena sartu, eta ez dugu nahi izan, gainera; bakar-bakarrik irakurriko dituzu, beraz, gure iritziz administrazioako eguneroko jarduna oztopatzen duten hizkuntza-auziak, beti ere, irtenbide egoki eta adostutakoak lagun. Azken batean, *Zalantza-dantza* honek pizgarri nahi du izan *Administrazioa euskaraz* aritu dadin eta lan horretan kalitatezko idazkiak zabal ditzan. Horretarako balio badu, gu pozik.

EGILEAK  
HAEeko Administrazio Hizkeraren Atala

## A

## A ITSATSIA

Hitz hauek, beste hitz askoren artean, *-a itsatsia* dute: *abantaila, aitzakia, anaia, animalia, arnasa, bidaia, burdina, egia, eliza, erregina, familia, feria, gauza, giltza, habia, ideia, justizia, kontzientzia, paisaia, panpina, pertsonaia, premia, probintzia...*

Eta atzizki hauekin osatutako hitzek ere bai:

*-keria* atzizkia: *alferkeria, azpikeria, handikeria...*

*-kuntza* atzizkia: *hezkuntza, hizkuntza, aurrerakuntza, hobekuntza, irakaskuntza...*

*-(t)eria*: *gazteria, gizateria, ontziteria...*

Horrek esan nahi du *-a* dutela erabili behar ditugula:

\*Ez du **aitzakirik** jarri.

\***Txorakeri** galanta esan du.

Ez du **aitzakiarik** jarri.

**Txorakeria** galanta esan du.

## ABAR (\*ETA ABAR LUZE BAT)

Euskaltzaindiak adierazi duenez, *\*eta abar luze bat* esamolde desegokia da. Bestalde, *eta abar*-en ohiko laburdura *etab.* da.

\*Lan baldintzak, soldatak, jai-egunak **eta abar luze bat.**

Lan baldintzak, soldatak, jai-egunak **eta abar.**

Lan baldintzak, soldatak, jai-egunak **eta abar eta abar/eta beste asko.**

## ADINDUN/ADINGABE(KO)

IZOK (HAEEko Itzulpen Zerbitzu Ofizialak) bi hitz horiek bultzatzen ditu hemazortzi urteko muga horretatik gorakoentzat eta beherakoentzat, hurrenez hurren.

## ADITZAREN ASPEKTUA (\*EMATEN DIDAZU LIBURUA?)

Gaztelaniaren eraginez, geroaldiaren tokian, orainaldia erabiltzeko joera izaten dugu, batez ere aginduak ematean edo mesedeak eskatzean.

\*Oraintxe **jartzen da.**

\***Joaten gara** kalera?

\***Ematen didazu** liburua?

Oraintxe **jarriko da.**

**Joango gara** kalera?

**Emango al didazu** liburua?

\***Esaten diozu**, mesedez, beranduago joango naizela.

**Esaiozu**, mesedez, beranduago joango naizela.

Eta baita orainaldia, iraganaren tokian ere.

\*Napoleon Korsikan **jaiotzen da** 1769an.

Napolean Korsikan **jaio zen** 1769an.



**ADITZERA EMAN/\*JAKITERA EMAN/\*EZAGUTZERA EMAN**

Euskaltzaindiaren esanetan, *jakitera eman* baino egokiagoa da *aditzera eman*.

\***Jakitera eman diot** datorren astean amaituko dela eskabidea aurkezteko epea.

\***Ezagutzera eman diot** datorren astean amaituko dela eskabidea aurkezteko epea.

**Aditzera eman diot** datorren astean amaituko dela eskabidea aurkezteko epea.

**ADOS (\*ADOSTASUNERA HELDU, ADOSTU)**

*Adostasunera heldu* edo *adostu* baino hobe *ados jarri*, *bat etorri*, *elkar hartu*...

\***Alderdiak**, luze eztabaidatu ondoren, **adostasunera heldu** dira.

Alderdiak, luze eztabaidatu ondoren, **ados jarri** dira.

**AGURE/ATSO**

Hitz markatuak dira biak, gutxiespen balioa dute askorentzat, eta ezin erabil daitezke *adineko*-ren sinonimo oso balira bezala.

\***Atso-agureentzako** bidaia politik antolatu ditu udalak.

**Adinekoentzako** bidaia politik antolatu ditu udalak.

**AHAL/AL**

**Ahal izatea:** zerbait gertatzeko edo egiteko ezintasunik, eragozpenik ez izatea.

**Al:** galderak egiteko aditzaren aurrean jartzen den hitza.

\*Egin **ahal** dezakegu hori?

\***Al** baduzu, egizu.

Egin **al** dezakegu hori?

**Ahal** baduzu, egizu.

**AHALDUN/ALDUNDI**

Hitz hauek, maiz, gaizki idazten ditugu: *h*-rik ez duenari *h*-a jartzen diogu eta alderantziz.

**Ahaldun:** herriak hautatutako ordezkaria (*h*-a duela).

**Aldundi:** ahaldunek osatzen duten erakundea (*h*-rik gabe).

\***Aldun** Nagusia **Ahaldundira** etorri da.

**Ahaldun** nagusia **Aldundira** etorri da.

**AHALERA**

Askotan, inongo beharrik gabe eta gehiegitan erabiltzen dugu ahalera.

\*Mendi honetatik paisaia zoragarria **ikus daiteke**.

Mendi honetatik paisaia zoragarria **ikusten da**.

Gainera, adizki horiek (*daiteke*, *dezake*...) ahalmena adierazten dute. Zalantza edo hipotesia azaltzeko beste baliabide batzuk daude: *baliteke*, *antza* (*denez*), *omen*...

\*Orduategia berriro aldatu dutela-eta, aztertzaileak **haserretu daitezke**.

Orduategia berriro aldatu dutela-eta, **litekeena da** aztertzaileak **haserretzea**.

**AHAZTU**

Ahaztu aditzak *-t(z)en* edo *-t(z)ea* har ditzake, baina adiera desberdinarekin. Ez da gauza bera:

Posta elektronikoaren bidez mezua **bidaltzen** ahaztu zait (*lehen banekien, baina ahaztu egin zait*).

Posta elektronikoaren bidez mezua **bidaltzea** ahaztu zait (*mezua bidali behar nuen, baina ahaztu*).

### AIPATITIS

*Aipatu, aipatutako...* beharrik gabe erabiltzen ditugu maiz. Gogoratu euskaraz erakusleak dauzkagula aurreko zerbaiten edo norbaiten erreferentzia egiteko.

\*Udaletxean batzorde bat sortu da. **Aipatutako** batzorde horren lana...

Udaletxean batzorde bat sortu da. Batzorde **horren** lana...

Udaletxean batzorde bat sortu da eta **horren** lana...

### AIRE GIROTU/\*HAIZE GIROTU

Erabili *aire girotu* euskara batuan.

### AITZIN/ANTZINA/\*AINTZINA

Esan nahi duguna *aurre* bada, erabili *aitzin* euskara batuan. Esan nahi duguna *aspaldi* bada, erabili *antzina*.

\*Zure **aintzinean** eseri zen eta **aintzinako** gauzak kontatu zituen.

Zure **aitzinean** eseri zen eta **antzinako** gauzak kontatu zituen.

Era berean, gogoratu, hitza *antzinatasuna* dela eta ez *\*aintzinatasuna*.

### ALDIRIKO TREN/\*INGURUTREN

Erabili *aldiriko tren*.

### ALTU/HANDI

Sarritan, *handi*-ren tokian, gaztelaniaren eraginez, *altu* erabiltzen dugu.

\*Lanpostu honetara maila **altuko** jendeak eman du izena.

Lanpostu honetara maila **handiko** jendeak eman du izena.

Bestalde, kontuan izan *handi* idatzi behar dela, eta ez *\*haundi*.

### ANDRE/ANDERE

*Andere* Iparraldeko forma da; Euskaltzaindiak *andre* hobesten du euskara baturako.

### ANTI-

Hitzak sortzerakoan, *anti*- aurrizkia erabiltzeko joera handia dugu, konturatu gabe euskaraz bestelako bideak ere baditugula horretarako.

\***Anti**konstituzionala.

\***Anti**monarkikoa.

Konstituzioaren **aurkakoa**.

Monarkiaren **aurkakoa**.

### ANTZEMAN/ATZEMAN

Maiz ageri dira bata bestearen orde. *Antzeman* aditza *igarri* aditzaren parekoa da; *atzeman*, berriz, *harrapatu* aditzarena (eta zenbaitetan *aurkitu*-rena).

**Antzeman** diot ez dela hemengoa.  
Azkenean **antzeman** dute lapurra.

## ARAU-ZATIAK

Arau-zatien izendapenak egiterakoan, askotan, zalantzak izaten ditugu. Hona hemen Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko itzultzaileen oniritziarekin hobetsi eta gomendatutakoa:

Gaztelaniaz	Euskaraz
<i>Título</i>	Titulu
<i>Capítulo</i>	Kapitulu
<i>Sección</i>	Atal
<i>Artículo</i>	Artikulu
<i>Párrafo</i> (artikuluaren zati zenbakiduna)	Paragrafo
<i>Apartado</i> (paragrafoaren zati letraduna)	Idatz-zati

## ARAZI/\*ERAZI

Euskaltzaindiak *arazi* erabiltzea gomendatzen du, salbuespen bakarrarekin: *adierazi*. Gogora ezazu aditz oinari, hau da, *-tu* eta *-i* bukaerak kenduta gelditzen zaigun formari (*sar-*, *ikus-...*) lotuta idatzi behar dela: *iraunarazi*, *ezagutarazi*, *geldiarazi...*, eta aditza *-a* bokalaz amaitzen bada, *-a* bakarrarekin idatziko dugula: *\*aldaarazi/aldarazi*, *\*koordinarazi/koordinarazi...*

## ARAZO

*Arazo* hitza, aukeran, gehiegi erabiltzen dugu. Dena da *arazo* administrazioan. Horrekin ez dugu esan nahi gaizki dagoenik; bai, ordea, hitz hori benetan “*arazoa*” denerako erabili behar dela. Ez dezagun erabili *arazo* hitza, beraz, adierazi nahi duguna *gaia*, *gertaera*, *auzia...* bada.

\*Gaurko bilerako bigarren gaia udaltzainen kontratazioa da. **Arazo** horri dagokionez...  
Gaurko bilerako bigarren gaia udaltzainen kontratazioa da. **Gai** horri dagokionez...

## ARRATSALDEZ/ARRATSALDEAN (GOIZEZ, EGUNEZ...)

Noizkoa den ez badakigu, *arratsaldez*. Eta, noizkoa den (atzokoa, gaurkoa...) badakigu, berriz, *arratsaldean*.

Lana **arratsaldez** (goizez, egunez...) egiten dugu.

Lana **atzo arratsaldean** (goizean, eguerdian...) bukatu genuen.

## ARRETA (\*ARRETA DEITU)

Gaztelaniazko *llamar la atención*-ek adiera bat baino gehiago har ditzake euskaraz; hala ere, behin eta berriz jotzen dugu *\*arreta deitu* erdarakadara.

\*Bere zapata gorriek **arreta deitu** zidaten.

Bere zapata gorriek **atentzioa eman** zidaten.

Bere zapata gorriak **deigarriak gertatu** zitzaizkidan.

\***Arreta deitu** zion, zapatak zikin eramateagatik.

**Errieta egin zion**, zapatak zikin eramateagatik.

\*Gustuko du toki guztietan **arreta deitzea**.

Gustuko du toki guztietan **nabarmentzea**.

### ARTXIBOZAIN/\*ARTXIBARI

Erabili *artxibozain* edo *agirizain* euskara batuan.

### ASKO, LUZE, HANDIA (\*BERO ASKO EGITEN DU)

Hauek guztiak nahastu egiten ditugu sarritan.

**Asko/gutxi:** ZENBAT galderari erantzuten diote. Izen zenbakarriekin edo neurgarriekin erabiliko ditugu.

**Luze/labur, handi/txiki, gogor/leun:** hauek NOLAKOA galderari erantzuten diote, izen neurgaitzekin erabiltzen dira eta intentsitatea adierazten dute.

\*Gose **asko** pasa dute.

\*Min **asko** egin dit.

\*Asko maite zaitut.

Gose **handia** pasa dute.

Min **handia** egin dit.

**Oso** maite zaitut.

**Maite-maite** zaitut.

\*Denbora **askoan** egon zen zain.

\*Arantxak Amaiaren antz **asko** du.

Denbora **luzean** egon zen zain.

Arantxak Amaiaren antz **handia** du.

Arantxa Amaiaren **antz-antzekoa** da.

### ASMOZ (\*EGIN ASMOZ)

Euskaltzaindiaren arabera, *egiteko asmoz*, *joateko asmoz*, *eztabaidatzeko asmoz* eta tradizioa duten horrelako egiturak erabili behar ditugu, eta ez *\*egin asmoz*, *\*joan asmoz*, *\*eztabaidatu asmoz*. Hala ere, kontuan izan, beti ere naturalagoak direla hauek: *egiteko asmoan*, *egiteko asmoarekin*...

\*Hori **egin asmoz** abiatu da.

Hori **egiteko asmotan** abiatu da.

Hori **egiteko asmoarekin** abiatu da.

### ATXILOTU/\*DETENITU

Erabili *atxilotu* euskara batuan.

### AURKITU/BILATU

Maiz, nahastu egiten ditugu. Lehena (*bilatu*) bestea (*aurkitu*) lortzeko ahalegina da.

\***Aurkitu** ondoren **bilatu** egin dut.

**Bilatu** ondoren **aurkitu** egin dut.

Zenbaitetan, *aurkitu* aditza erabil genezake *egon* aditzaren ordean, baina, ez da komeni gehiegikeriaz erabiltzea.

\*Gizon bat **aurkitzen da** teilatuan. \*Gaur gaizki **aurkitzen naiz**.

Gizon bat **dago** teilatuan.

Gaur gaizki **nago**.

\*Guggenheim museoa Bilbon **kokatuta aurkitzen** da.

Guggenheim museoa Bilbon **dago**.

**AURREALDE, AURREKO ALDE/\*AURREKALDE**

Erabili *aurrealde* edo *aurreko alde*, eta *atzealde* edo *atzeko alde* euskara batuan.

**AURREAN**

Zenbaitetan, gaztelaniaren bidetik, *-(r)en aurrean* egitura gehiegi erabiltzen dugu. Errekurtsuak, adibidez, beti norbaiti jartzen zaizkio, eta ez norbaiten aurrean.

\***Alkatearen aurrean** errekurtsua aurkeztu du.

**Alkateari** errekurtsua aurkeztu dio.

**AUTO, BERIBIL/KOTXE**

Erabili *auto* edo *beribil* euskara batuan. Hala ere, *kotxe* hitza zaldigurdi, bagoi, eta abarren kidea denean edo Hegoaldean haurrak eramatekoa denean bakarrik erabiliko dugu maila jasoan.

**AUTONOMI(A)-PROZESUA/\*PROZESU AUTONOMIKOA**

*Prozesu autonomikoa, arazo burokratikoak...* (izena+izenondoa) baino egokiagoak dira euskaraz *autonomia-prozesua, burokrazia-arazoak...* (izena+izena). Hala ere, bigarren zatiko izenondoa (*autonomikoa*) aurrera ekartzeak, askotan, lanak ematen dizkigu, eta hitz-elkarketa gaizki egiten dugu: *\*autonomiko prozesua, \*burokratiko arazoak...*

Bestalde, gogoratu, hitz elkartuetako lehen hitzak bukaeran *-ia* dutenean, *-a* hori kenduta nahiz kendu gabe idatz daitekeela: *autonomi prozesua/autonomia prozesua/autonomia-prozesua*. Gaizki dagoen bakarra hau da: *autonomi-prozesua*.

**B****BADA/\*BA**

Euskara mintzatuan onartzekoa da *ba* forma, maila neutroari *bada* forma dagokion arren. Euskara idatzian, aldiz, hobe *bada*.

**BAIKOR/EZKOR**

Pertsonak izaten dira *baikorrak/ezkorak*. Bestelakoetan erabili: *positiboa/negatiboa, ona/txarra, egokia/desegokia...*

\*Emaizta **baikorra** izan da.

Emaizta **ona/positiboa/itxaropentsua** izan da.

**BALDINTZA**

Maiz, gaztelaniaren eraginez, *baldintza* hitza gehiegi eta tokiz kanpo erabiltzen dugu. Askotan, *baldintza* hitza baino egokiagoa da *egoera* hitza erabiltzea.

\*Gela **baldintza** txarrean dago.

Gela **egoera** txarrean dago.

Gela **txarto** dago (*erregistroaren arabera*).

### BALDINTZAK (ZURRUMURRU BALDINTZAK)

Zenbait esalditan, zurrumurrua tarteko bada, inongo baldintzarik ez egon arren, baldintzaren ondorioa adierazten duten aditzak erabiltzen ditugu, gaztelaniaz ere hala erabiltzen direlako.

\*Iturri batzuen arabera, Espainiako Erregea uda honetan **ezkonduko litzateke**.

Iturri batzuen arabera, Espainiako Erregea uda honetan **ezkonduko da/ ezkontzekoa da/ezkontzekotan da**.

### BALIATU

*Baliatu* aditzak aditz erregimen diferenteak har ditzake, adieraren arabera:

1. **zaio** aditza: inori zerbait edo norbait baliagarri gertatu (*zuk esandakoa baliatu zaio*).
2. **da** aditza: zer edo zer egiteko norbait edo zerbait erabili; (-z) kasu atzizkia eskatzen du (*zuk esandakoaz baliatu da*).
3. **du** aditza: *erabili* adierarekin (*lan horren egiteko liburu asko baliatu dituzte*).

### BALIO/BALORE

Zenbaitetan, nahastu egiten ditugu:

**Balioa**: kostua, prezioa, salneurria.

**Balorea**: lagunarteko hitza da; maila neutroan hobe *kemena*, *adorea*.

\*Zein da aterki honen **balorea**?

\* Horrek dik **balioa**, horrek!

Zein da aterki honen **balioa**?

Horrek dik **balorea**, horrek! (*kemena*)

Zenbat **balio du** aterki honek?

### \*BANKU/\*ZENTRO

Askotan, *banco* edo *centro* bezalako hitzak ikusten ditugunean, itzulpen zuzena egin eta *banqu* edo *zentro* idazten dugu, konturatu gabe, horretarako euskarak badituela bestelako hitzak ere: *etxe*, *-tegi*, *egoitza*, *gordailu*...

\*Datu **bankua**.

\*Zaharren **zentroa**.

Datutegia.

Zaharren **egoitza**.

Datu-gordailua.

Zaharren **etxea**.

### BARNEAN EGON/\*BARNE EGON

\*-(r)en *barne egon* forma okerra da; -(r)en *barnean egon* erabili behar dugu.

\*Kafea ere prezioaren **barne dago**.

Kafea ere prezioaren **barnean dago**.

Bide batez esan behar dugu *barnean* hitzak lekua adierazten duela nagusiki, eta, askotan, behar ez den tokian erabiltzen dela.

\*Hitzaldien **barnean** erakusketa bat ere badago.

Hitzaldien **egitarauan** erakusketa bat ere badago.

Hitzaldiekin **batera** erakusketa bat ere badago.

## BAT/A

Gaztelaniazko *un/una* guztiak ez dira beti *bat* euskaraz.

\***Baimen bat** behar da hara sartzeko.

\***Alfer bat** zara.

**Baimena** behar da hara sartzeko.

**Alferra zara**, itzela!

Ez gaitezen, ordea, beste muturrera joan eta *bat* guztiak debekatu.

Behin **batean**, herri txiki **batean**, neskabila bizkor eta bihurri **bat** bizi zen.

Hori da gizon **bat**, jatorra, eskuzabala... eta inoiz gezurrik esango ez dizuna.

Ez ahaztu zehaztugabetasun handiagoa adierazi nahi denean, *-(r)en bat* erabil dezakegula. Gogoratu horrelakoak mugagabeen jarri behar direla, eta ez singularrean, ez pluralean.

\***Dei bat** baldin badago, bideratu egin beharko da.

\***Deiaren bat/Deien bat** baldin badago, bideratu egin beharko da.

**Deiren bat** baldin badago, bideratu egin beharko da.

**Deirik** badago, bideratu egin beharko da.

Azkenik, *bat* osagaia duten hainbat hitz idazterakoan zalantza egiten dugu askotan. Hona hemen hitz horietako batzuk nola idatzi:

*bat-batean*

*\*bapatean*

*bat-bateko*

*\*bapateko*

*bat-batekotasun*

*\*bapatekotasun*

*batik bat*

*\*batipat*

*bat egin*

*bat-egite*

*batean (gurasoekin batean bizi da bere etxean; bata etortzearekin batean joan da bestea).*

*batera (guztiek batera oihu egin zuten; nirekin batera doa nire itzala; zu iris-tearekin batera abiatuko naiz).*

*bat ere (ez du bilera bat ere huts egin).*

## BATEZ BESTE/\*BATAZBESTE

Erabili *batez beste* eta *batez bestekoa* euskara batuan.

**Batez beste** egunean hamar saltzen ditut.

**Batez besteko** matematikoa atera behar da.

## BATZUK

Forma hauek erabaki ditu Euskaltzaindiak *batzuk*-en deklinabideari dagokionez:

*batzuk (batzuk etorri dira).*

*batzuek (batzuek egin dute).*

*batzuei*

*batzuen (batzuengan, batzuengana, batzuengandik, batzuen baitan, etab.).*

*batzuekin*

*batzuez*

*batzuentzat*

*batzuetan*

batzuetako

batzuetara

batzuetatik/batzuetarik

Horrenbestez, kontuz honelakoekin:

\***Batzutan** etortzen da.\*Etxe **batzutan** ez dago argirik.**Batzuetan** etortzen da.Etxe **batzuetan** ez dago argirik.\***Batzuk** badakite hori.\*Gizon **batzu** etorri dira.**Batzuek** badakite hori.Gizon **batzuk** etorri dira.Gaztelaniaren eraginez, *bat* eta *batzuk* erabiltzen ditugu *huts*-en ordez, izenondoei balio enfatikoa emateko.\*Inozo **batzuk** zarete!\*Alfer **batzuk** dira arduradun horiek.Inozo **hutsak/galantak** zarete!Alfer **hutsak/itzelak** dira arduradun horiek.**BEGIRATU DIZUT/ZAITUT**Bi adiera ditu *begiratu* aditzak: *so egin* eta *zaindu*. Esanahiak aditz laguntzailearen bidez bereizten ditugu:Begiratu **dizut** (so egin, behatu).Begiratu **zaitut** (babestu, zaindu).**BEHAR**Uste zabal baten arabera, *joan behar naiz* gaizki dago, eta *joan behar dut* zuzen, baina, kasu honetan, usteak ustel; izan ere, biak ondo daude.**BEHIN-BEHINEKO/\*PROBISIONAL**Erabili *behin-behineko* euskara batuan.**BENETAKO/\*BENETAZKO, PRESAKO/\*PRESAZKO**Batzuetan, beste hitz batzuen analogiaz edo, berez erabili behar genukeen *-ko* atzizkiaren ordez, *-zko* atzizkia eranstean dugu, eta horregatik nonahi entzun eta irakurtzen dira *benetazko* eta *presazko* bezalakoak. Euskara batuan, ordea, *benetako* eta *presako* edo *presakako* erabili.**BER-/BIR-**Sarriegi erabiltzen da aurizki hau, erdarazko *re-* aurizkiaren eraginez: batzuetan, ondo; besteetan, ordea, txarto. Gainera, nekez esan daiteke egokitasunaren eta gehiegikeriaren arteko muga non dagoen. Horregatik, erabilera okerrak eta larregizko errepikapenak saihesteko, ulerterrazagoa eta egokiagoa izaten da *berriz* edo *berriro* erabiltzea.

\*Berresan

Berriz esan

\*Birplanteatu

Berriz mahairatu

\*Berraztertu

Berriz aztertu

\*Zerbaiti berrekin

Zerbait berriz egiten hasi

\*Soldatak berregokitu

Soldatak egokitu

\*Igandean berragertuko da Karmona

Igandean jokatu du Karmonak berriz

\*Petrolioia birfindu

Petrolioia findu



**BERA/BERDIN**

*Bera* ez da *berdin* hitzarekin nahasi behar.

**Bera:** gauza bakarra da, baina behin baino gehiagotan errepikatzen da:

Senar bera daukate bi andre horiek, jakinaren gainean egon barik (*senar bera bientzat*).

Ikusten denez, *bera* hitzak baino ez du deklinabide marka hartzen: *senar bera*.

**Berdin:** elkarren antza duten gauza bi edo gehiago.

Zure jantzia eta nirea oso antzekoak dira, berdinak dira (*jantzi bana*).

Bestalde, *bera* hitzak badu beste zeregin bat: aurreko hitzak adierazten duena azpimarratzea, *nor eta...*, *norekin eta...* esapideen antzera. Eta lehen azaldu dugun erabileran ez bezala, aurreko hitzak ere hartzen du deklinabide marka.

Sailburu**ak** ber**ak** eman dizkigu zorionak.

Alkate**arekin** ber**arekin** egin nuen topo oporretan.

**BERANDU(AGO)/GERO(AGO)**

Gaztelaniazko *tarde* hitzak bi adiera ditu: *berandu* eta *gero*. Beharbada, buruan konturatu gabe erdara darabilgulako, nahasi egiten ditugu biak.

**Gero:** *beste zerbaiten ondoren* adierazten du, puntualitatearekin edo garaiz ibiltzearekin inolako zerikusirik gabe, hau da, segida kronologiko hutsa adierazten du. Erabil liteke *geroago*; esaterako, demagun batek esan duela Kolon 1475ean heldu zela Ameriketara; orduan, hauxe erantzun beharko:

\*Ez horixe! Askoz **beranduago** heldu zen: 1492an, hain zuzen ere.

Ez horixe! Askoz **geroago** heldu zen: 1492an, hain zuzen ere.

**Berandu:** atzerapena adierazten du; hau da, behar den ordua edo sasoiaren ondoren, eta *goiz* edo *sasoiz* hitzen kontrakoa.

Jon **berandu** heldu da: bilera zazpietan zen arren, zortzietan heldu da.

**Beranduago** erabili ahal izateko, behar-beharrezkoa da lehenago *berandu* bat erabili izana. Esaterako, demagun bilera bat seietan genuela, baina Jon sei eta erdietan heldu dela, eta Miren, ordea, zazpietan; hortaz:

Jon berandu heldu da eta Miren **beranduago**.

**BEREZI/BEREIZI**

Ez elkarrekin nahastu. **Berezi** izenondoa da.

Bilera **berezi** bat egingo dugu arazoa konpontzeko.

**Berezi**, ordea, aditza da, eta ez besterik.

Proposamenaren alde onak eta txarrak **bereizi** zituen batzordeko kideak.

**BERRESKURATU**

Gaztelaniaz *recuperar* erabiltzen den guztietan, *berreskuratu* erabiltzera jotzen dugu. Euskaraz, baina, beste esapide batzuk erabili behar dira hainbat egoeratan. Esaterako:

\*Ostiraleko bilerak **berreskuratuko** dira.

**Berriz** bilduko gara ostiraletan.

Hau ere, erdarakada nabarmena da:

\*Buruan kolpea hartu eta minutu baten ondoren **berreskuratu** zuen konortea.

Buruan kolpea hartu eta minutu baten ondoren **etorri zen bere onera/konortera**.

## BERRIA/BESTE BAT (\*GOL BERRIA SARTU)

*Berri* hitzak honako esanahi hauek ditu:

- Erabili, hondatu edo urratu gabea: oinetako **berriak** nituen, zuk zapaldu arte.
- Orain-oraingoa, egin berria: ogi **berriaren** usaina maite dut.
- Aurreko zerbaiten ordezkoa: zuzendari **berria** izendatu dute.

Hala ere, badirudi beste adiera bat hasi dela zabaltzen. Gertakari batzuen zerrendan zerbait eransten dela adierazteko erabiltzen dugu, *beste bat* erabili beharrean. Adiera berri hori okerra eta tradizio gabea da.

Horren ondorioz, esapide oker eta gaizki ulertze ugari sortarazten du: *\*garaipen berri bat lortu, \*gol berri bat sartu, \*eraso berri bat jasan...* zerrenda luzea osa genezake. Bistan dago ez dagoela garaipen zaharrik, ez gol zaharrik, ezta eraso zaharrik ere, eta argi dago horietan guztietan *beste bat* erabili behar dugula: *beste garaipen bat, beste gol bat, beste eraso bat...*

Inoiz, biak izan daitezke zuzenak, baina ondo erreparatu esan nahi dugunari, okerrik ez egiteko.

Proposamen **berria** egin digute (*aurrekoa bertan behera utzi dute eta haren ordezeko proposamena egin digute*).

**Beste** proposamen **bat** egin digute (*aurrekoaz gain, badugu beste proposamen bat mahai gainean*).

## BESTE

Kontuz, *beste* izenlaguna erabiltzerakoan!

\***Beste gola** sartu digute.

\***Beste gauza** ere esan zuen.

**Beste gol bat** sartu digute.

**Beste gauza bat** ere esan zuen.

## BESTERIK EZ

Duda egiten dugu askotan *besterik ez* esapidea erabiltzean, *besterik* horren aurreko hitza pluralean badago: *liburuak besterik ez dut irakurtzen...* ala *ez ditut*? Hona erantzuna: *besterik* da esapide horretan aditzaren objektua: *besterik ez dut* idatzi behar dugu.

\*Txostenaren ondorioak **besterik** ez **nituen** azpimarratu.

Txostenaren ondorioak **besterik** ez **nuen** azpimarratu.

\*Hitzaldira lagunak **besterik** ez **zaizkio** etorri.

Hitzaldira lagunak **besterik** ez **zaio** etorri.

## BEZALA (\*AMERIKETARA JOAN ZEN ARTZAIN BEZALA)

Ezin dira gaztelaniazko *como* guztiak *bezala*-rekin ordezkatu. Batzuetan ez da ezer jarri behar.

\*Bost urtez aritu zen Donostian **irakasle bezala**.

Bost urtez aritu zen Donostian **irakasle**.

Eta beste egitura batzuk ere erabil daitezke.

\***Zuzendari bezala**, ez dut zertan fitxatu.

**Zuzendari naizenez/naizen aldetik**, ez dut zertan fitxatu.

Halaber, ez dira gauza bera (-n) *bezala* eta -(e)*nez*.

**Bezala:** Besteak esandakoarekin bat egiten dugu edo esandakoa egiazkotzat jotzen dugu.

Irratiak esan duen **bezala**, prezioek gora egingo dute.

Iñakik esan **bezala**, baldintza horiek onartezinak dira.

**-nez:** Ziurtasun txikiagoa dago. Erlatibizatu-edo egiten da esandakoa.

Irratiak esan du**enez**, prezioek gora egingo dute.

Iñakik esan du**enez**, baldintza horiek onartezinak dira.

## BEZALA/BEZALAKO

Ez nahastu *bezala* eta *bezalako* hitzak.

**Bezalako** hitzak NOLAKOA galderari erantzuten dio, eta **bezala** hitzak, ordea, NOLA galderari. Hortaz, ez dira gauza bera:

Zuk nahi zenuen bezala egin dute irudia (modu berean egin dute irudia).

Zuk nahi zenuen bezalakoa egin dute irudia (nahi zenuen itxura bera du irudiak).

Kontuz ibili *-tzea* bukaera duen sintagma bat badugu. Euskaltzaindiaren iritzi, badirudi nominalizazioak ezin duela *bezalako* hartu, *bezala* baizik.

\*Liburua idaztea barruak hustutzea **bezalako** izan da.

Liburua idaztea barruak hustutzea **bezala** izan da.

Gero eta sarriago entzuten dira honelako esaldiak:

\*Tomatea eta uraza **bezalako** gaiak, garestitu egingo dira.

Hobe *hala nola*, *besteak beste* edo *esaterako* esapideak erabiltzea.

Zenbait gai garestitu egingo dira, **hala nola**, tomatea eta uraza.

Zenbait gai garestitu egingo dira, **esaterako/besteak beste**, tomatea eta uraza.

## BIDESARI/ORDAINLEKU/\*PEAJE

Erabili *bidesari* (autobidea erabiltzeagatik ordaindu ohi dena) eta *ordainleku* (bidesaria ordaintzeko lekua). Euskaltzaindiak *\*peaje* hitza gaitzetsi du.

Europistas enpresak **bidesaria** garestitu egin du.

Altubeko **ordainlekuan** auto-ilara luzeak izan dira.

## BIHURKARIAK (\*AURPEGIA GARBITU NAIZ)

Esaldi bihurkarietan honako esamoldeak aurkitzen ditugu. Argi ibili!

\*Bota **egin da** leihotik behera.

**Bere burua** bota du leihotik behera.

\*Etorriko ote den **galdetzen naiz**.

Etorriko ote den galdetzen diot **neure buruari**.

Bestalde, zenbait aditzekin bihurkaritasuna adierazi nahi dugunean (*jantzi, garbitu...*), esamolde desegokiak erabiltzen ditugu. Ikusi adibideak:

Jantzi **naiz**.

Garbitu **zara**.

\*Galtzak jantzi **naiz**.

\*Hortzak garbitu **zara**.

Galtzak jantzi **ditut**.

Hortzak garbitu **dituzu**.

Bidenabar, gogoratu *\*nire burua, \*zure burua...* gaizki daudela, *neure burua, zeure burua...* dira zuzenak.

Plurala erabiltzen dugunean, *burua* singularrean gordeko dugu.

\*Gauzak ez badira ondo ateratzen **\*geure buruak** botako **ditugu** leihotik.

Gauzak ez badira ondo ateratzen **geure burua** botako **dugu** leihotik.

### BIHURTU/BILAKATU (\*ALKATEAN BILAKATU)

Askotan, gaztelaniazko egituran oinarrituta erabiltzen ditugu *bihurtu* eta *bilakatu* aditzak. Galdera ez da *zertan bihurtu...?* Aitzitik, *zer bihurtu...?* da galdera zuzena.

*Bihurtu* aditzaren aurreko hitza bakarrik badago, mugagabeen jarri behar dugu.

Printzesa **igel** bihurtu da (*ez, ordea, igel batean, ezta igel bat ere*).

Ura **ardo** bihurtu zuen (*ez, ordea, ardoan, ezta ardotan ere*).

Ostera, lagunduta-edo baldin badago, hau da, ondoan zerbait baldin badu (izenondua, izenlaguna, adjektibo konparatiboa, erlatibozko perpausa, etab.) artikulua eskatzen du askotan.

Lehenago lantegia parke publikoa bihurtu dute.

Emakumerik ederrena bihurtu zen.

Inork nahi ez duen zabortegia bihurtu nahi dute auzoko pagadia.

### BITARTEAN

Onargarria bakarrik bi ekintzak batera egiten direnean: *fotokopiak egiten dituzun bitartean nik kafeak ekarriko ditut*.

\*Zuzendariari soldata igo zioten **bitartean**, teknikariok lehenago moduan geratu ginen.

Zuzendariari soldata igo zioten, **baina** teknikariok lehenago moduan geratu ginen.

### BIZI/BIZITZA/BIZIMODU

Nahiz eta Euskaltzaindiak bi hitzen arteko bereizketa oraindik argitzeke daukan, askok honela bereizten dituzte *bizia* eta *bizitza*:

**Bizia** biologikoa da: *bizia galdu, bizia kendu, bizia eman, bizia barkatu...*

**Bizitza**, ordea, kronologikoa: *Jesusen bizitza; jaiotzatik heriotzara, bizitzako egun guztietan, zintzo jokatu zuen...*

**Bizimodu** hitzak, berriz, bizitzeko modua edo bizibidea adierazten du.

Eguneroko bizimodua iluna eta tristea iruditzen zaio.

Bizimodua irabazteko lan egin behar izan zuen.

**BIZKAITIK ZUBEROARA/\*BIZKAIATIK ZUBERORA**

Izen berezi hauek, beste batzuen artean, amaierako *-a* galdu egiten dute deklinatzerakoan: *Peñacerrada-Urizaharra, Erribera Beitia, Zigoitia, Bizkaia, Forua, Mallabia, Mañaria, Azkoitia, Azpeitia, Hondarribia, Mutiloa...*

*Bizkai <b>atik</b>	*Foru <b>ako</b>	*Azkoti <b>ako</b>
Bizkai <b>tik</b>	Foru <b>ko</b>	Azkoti <b>ko</b>

Baina NON kasuan deklinatzerakoan, amaierako *-a* hori berriro hartzen dute.

*Bizkai <b>n</b>	*Foru <b>n</b>	*Azkoi <b>tin</b>
Bizkai <b>n</b>	Foru <b>n</b>	Azkoiti <b>n</b>

Leku-izen batzuek, ordea, *-a* itsatsia dute, eta horiek, deklinatzerakoan, ez dute amaierako *-a* galtzen. Kontuz, beraz, hitz hauekin: *Arrazua-Ubarrundia, Barrundia, Laguardia, Valdegovía, Zuia, Lemoa, Mungia, Ondarroa, Plentzia, Alegia, Donostia-San Sebastián, Getaria, Lasarte-Oria, Olaberria, Ordizia, Pasaia, Errenteria, Zaldibia, Zestoa, Nafarroa, Zuberoa...*

*Donosti <b>ra</b>	*Zuber <b>ora</b>	*Plentzi <b>ko</b>
Donosti <b>ara</b>	Zuber <b>oara</b>	Plentzi <b>ako</b>

**BOLUNTARIO/\*BOLONDRES**

Erabili *boluntario* euskara batuan.

**BORROKATU/DANTZATU/JOLASTU**

Aditz horietan guztietan, *izan* aditza erabili:

\*Irabazi arte borrokatuko **dugu**.

Irabazi arte borrokatuko **gara**.

\*Lehertu arte dantzatu **genuen**.

Lehertu arte dantzatu **ginen**.

\*Baratzean jolastu **dute**.

Baratzean jolastu **dira**.

Hala ere, badirudi are jatorragoa dela *borrokan egin, dantzan egin, jolasean ibili, musean egin...* esapideak erabiltzea.

Irabazi arte **egingo dugu borrokan**.

Lehertu arte **egin genuen dantzan**.

Baratzean **ibili dira jolasean**.

**BOSGARREN/\*BOSTGARREN**

Euskara batuan *bosgarren* erabili.

**BOSPASEI/\*BOSTPASEI, LAUZPABOST/\*LAUPABOST**

Erabili *bospasei* eta *lauzpabost* euskara batuan.

**BOTA (\*SIESTA BOTA)**

Azkenaldian *bota* gehiegi ikusten da euskaraz.

\*Senargaia **bota**.  
Senargaia **egin**.

\*Siesta **bota**.  
Siesta **egin**.

Lagunarteko elkarriketetan edo antzekoetan erabil daitekeen arren, hizkera-maila jaso edo zainduetan egokiagoa dirudi bestelakoak erabiltzea.

\*Kargutik **bota** dute.  
Kargutik **kendu** dute.

\*Administrazioari **bota** dio errua.  
Administrazioari **leporatu/egotzi** dio errua.

*Faltan bota* ere ez da esapide egokia euskaraz.

\***Faltan botatzen** dut.  
**Haren hutsa/hutsunea sumatzen** dut.  
**Haren zuloa gelditu da/nabari da**.

### BUKATU (\*GAIAREKIN BUKATZEKO)

Batzuetan, ez da zuzena *-(r)ekin bukatu* egitura:

\*Afaria**arekin** bukatu zuen.  
Afaria bukatu zuen.  
Afaltzen, dena jan zuen.

\*Gai hor**ekin** bukatzeko...  
Gaia amaitzeko...  
Gaiari amaiera emateko...

### BURUTU

Askotan, *egin* adiera ematen zaio, gaztelaniazko *llevar a cabo* horrekin nahastuta. Oстера, *amaitu* esan nahi du aditz honek, eta ez *egin ezta gauzatu* ere.

\*Hiruhileko honetan sei bilera burutuko ditugu.  
Hiruhileko honetan sei bilera egingo ditugu.

# D

### DAGOENeko/HONEZKERO

Sarri askotan nahastu egiten dira.

**Honezkero:** ziurtatu gabeko ustea adierazten du:

Zazpiak dira: **honezkero** etxean izango da (*etxean dagoela uste dugu*).

**Dagoeneko:** zerbait egiaztatua adierazten du, kontu jakina da:

**Dagoeneko** heldu da lanera: oraintxe bertan jaso dut haren mezu bat ordenagailuan.

Iraganaz ari bagara, hobe **ordurako:**

Zazpitan deitu nion bulegora, baina **ordurako** etxerako bidean zegoen.

### DAGOKIONEZ/DAGOKIONEAN

Gaztelaniazko *en lo que respecta* esapidea euskaraz ematean *dagokionez* forma zuzenaren lekua ari da hartzen *dagokionean* forma desegokia. Arrazoia, ezin argiagoa izan: itzulpen hitzez hitzekoa eginez, erdarazko *en hori -ean* bihurtzen dugu. Baina forma bakoitzak badu bere erabilera-eremu egokia:

**Dagokionez:** erdarazko *en lo que respecta, en lo concerniente...* esapideen ordain egokia.

\*Bigarren gaiari dagokionean, erabateko desadostasuna agertu zuen.

Bigarren gaiari dagokionez, erabateko desadostasuna agertu zuen.

**Dagokionean:** denborazkoa denean bakarrik, NOIZ galderaren erantzuna baita. Ezin du aurrekoa ordezkatu.

\*Txanda dagokionez izango du hitz egiteko aukera; ordura arte, hobe du isilik egon.

Txanda dagokionean izango du hitz egiteko aukera; ordura arte, hobe du isilik egon.

## DATA

Zale ugari dituen arren, egitura hau ez da zuzena gutunen amaierako data ematean:

\*Vitoria-Gasteiz, 2000ko urriak 22.

Horren ordeztu, honako hauek erabili euskara batuan:

Vitoria-Gasteiz, 2000ko urriaren 22a.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko urriaren 22an.

**Urriak zazpi** egitura, aposizioan erabili beti, aurretik emandako zerbaiten azalpen gisa eta koma artean. Eta, kontuz!: zenbakiak ezin dezake deklinabide-markarik hartu.

\*Ekainak zazpian itxiko da izena emateko epea.

Ekainaren zazpian itxiko da izena emateko epea.

\*Hilak zazpian, datorren asteazkenean, egingo dugu bilera.

Datorren asteazkenean, hilak 7, egingo dugu bilera.

## DELAKO

Oso ezagun ez den hitzen bat edo erdarazko hitzak euskarazko testuinguru batean aurkezteko balio du. Kontu handiz erabili behar dugu, gehiegikeriak egin gabe. Bestela, halako monotonia hartuko du gure testuak, eta, beharbada, erdal egiturak euskal ordainez adierazi ezina agerian utziko.

PRI delako alderdiak irabazi du berriz ere Mexikon.

Partido Revolucionario Institucional delakoak irabazi du berriz ere Mexikon.

Ahal dela, beste bide batzuk ere erabili, hala nola *izeneko, deritzan*, monotonia hausteko, edo hobe, hitz arrotzaren adieraren azalpena.

Alderdi Iraultzaile Instituzionala (PRI) berriz atera da garaile hauteskundeetan.

Azken hogeitun urteotan Mexikon agintean dagoen PRI alderdiak irabazi du berriz.

Bestalde, kontuan izan *delako* hori aditzaren aldiaren eta numeroaren arabera aldatzen dela.

Short **direlako** galtzamotzak.

Fakir **zelako** batek nolako gauzak egiten zituen ikustera joan ginen.

## DENA/GUZTIA (\*LAGUN DENAK)

Euskaltzaindiaren ustez, *dena* zenbatzailea bakarrik doa, ondoan lagunik gabe, eta, hortaz, zalantzakotzat jotzen ditu honelakoak:

Lagun denak etorri ziren.

Proposamen denak onartu ditu.

Beraz, hobe honelakoak erabiltzen baditugu:

**Denak** etorri ziren.

**Denak** onartu ditu.

*Guztia* zenbatzailea, ordea, bakarrik nahiz izen batekin joan daiteke.

**Lagun guztiak** etorri ziren.

**Proposamen guztiak** onartu ditu.

**Guztiak** etorri ziren.

**Guztiak** onartu ditu.

## DENDA

Euskaltzaindiak erabaki du *Hiztegi Batuan denda* eta *salgaia* bereizita edo marrarekin lotuta idatzi behar direla.

\*altzaridenda

\*gozodenda

\*liburudenda

altzari-denda

gozo-denda

liburu-denda

altzari denda

gozo denda

liburu denda

## DEPARTAMENTU/DEPARTAMENDU

Ez nahastu hitz biok:

**Departamendu:** Frantziako administrazio-barrutia.

**Departamentu:** Saila.

## \*DERRIGORREZ

Forma okerra euskara batuan; erabili *derrigorrean*, *nahitaez*, *ezinbestean*...

Bestalde, Euskaltzaindiak *derrigor*, *derrigorrezko* eta *derrigortu* euskara batuan onartzen dituen arren, honako hauek hobesten ditu: *nahitaez*, *nahitaezko*, *behartu*.

## DESAGERTU

Egia da oso hitz praktikoa dena (batez ere erdaratik itzulpenak egiteko). Baina zerbait edo norbait galdu dela adierazteko badugu baliabide gehiago: izan ere, *galdu* aditzak ederto betetzen du batzuetan *desagertu* bihurri horren lekua.

\*Hizkuntza asko eta asko **desagertu** dira munduan mende honetan.

Hizkuntza asko eta asko **galdu** dira munduan mende honetan.

\*Itsasoan bi itsasontzi **desagertu** dira.

Itsasoan bi itsasontzi **galdu** dira.

Baita honako hauek ere: *itsasoratu zenetik ez dago bere berririk*, *ez dakigu ezer lagun horretaz*...

## DESBERDIN

Gaztelaniazko *diferentes* edo *diversos* hitzak ez ditugu beti desberdintasuna adierazteko erabiltzen. Batzuetan, multzo bateko osagarriak zehaztu gabe aipatzeko erabiltzen ditugu. Horrek arazo ederra dakar euskaraz zeregin horretan *desberdin* hitza erabiltzen dugunean. Hobe, horren ordez *batzuk*, *zenbait*, *hainbat* edo *guztiak*.

\*Formato **desberdinetan** aurkeztu zuten egitasmoa.

**Hainbat** formatutan aurkeztu zuten egitasmoa.



\*Legebiltzarreko alderdi **desberdinak** bat etorri ziren bozketan.

Legebiltzarreko **alderdiak**/alderdi **guztiak** bat etorri ziren bozketan.

**DEUSEZTATU/\*DEUSEZTU**

Erabili *deuseztatu* euskara batuan.

**DIZIPLINA/\*DISTZIPLINA**

Erabili *diziplina* euskara batuan.

**DOKUMENTU/\*DOKUMENTO**

Erabili *dokumentu* edo *agiri* euskara batuan.

**DUELA/ORAIN DELA**

1. Singularrean beti.

\*Orain **direla** lau urte...

\***Dituela** bost urte...

Orain **dela** lau urte...

**Duela** bost urte...

2. Deklinabidea.

**NOIZ?**

Duela lau urte

**NOIZ ARTE?**

Duela lau urte **(ra) arte** Orain dela lau urte **(ra) arte**

**NOIZTIK?**

Lau urte**tik hona**

Duela lau urte**tik**

Orain dela lau urte**tik**

**E****EDADE, EDADEKO, EDADETU**

Hitz hauei buruz Euskaltzaindiak hauxe dio: *edade, edadeko, edadetu*: herri-mailakoak, Hegoaldekoak; forma hobetsiak hauek dira: *adin, adineko, adindu*.

**EDUKI/\*EDUKIN**

Erabili *eduki* euskara batuan, bai aditza denean bai izena denean.

**EGIN (\*TONTOA EGIN)**

Horrelakoetan *tontoarena egin* edo *tonto-plantak egin* da zuzena, ez *tontoa egin*.

\*Tontoa **egiteari** uzteko esan zion irakasleak.

Tonto**arena egiteari** uzteko esan zion irakasleak.

Tonto-**plantak egiteari** uzteko esan zion irakasleak.

## EGON/ARI IZAN

*Lanean nago* esaten badugu, batek baino gehiagok egingo du barre: izan ere, askok eta askok bereizten dituzte *egon*, *batetik*, eta *ari izan/ibili/jardun* bestetik.

**Egon:** estatikoa-edo da, antza. Kontraesana izango litzateke mugimendua eskatzen duen ekintza *egon* aditzarekin adieraztea. Horregatik, hasierako *lanean dago* bihurria *lanean da* edo *lantokian dago* erabiliz ordezkatu beharko genuke, NON galderari erantzun nahi badiogu behintzat.

**Ari izan/ibili:** ekintza dinamikoa adierazten du. ZERTAN galderari erantzun nahi badiogu, *ari izan* erabili beharko dugu hasierako esaldiaren ordeiz: *lanean ari da* edo *lanean dabil/dihardu*.

\*Gorpuen bila **daude** gau eta egun.

Gorpuen bila **dabiltza** gau eta egun.

\*Txarto jokatzen **dago**.

Txarto jokatzen **ari da**.

\*Beti gauza bera esaten **dago**.

Beti **ari da** gauza bera esaten.

## EHUNEKO/\*PORTZENTAIA; PORTZENTAJE

Erabili *ehuneko* euskara batuan. Euskaltzaindiak ez du *portzentaia* hitza jaso; eta *portzentaje* baino *ehuneko* hobesten du.

## EHUNEKOAK

Euskaltzaindiaren arau-proposamen baten arabera, ehunekoetan bi kopuru agertuko zaizkigu (%5). Batak multzoa adierazten du (oro har, 100 erabili ohi da), eta besteak azpimultzoa. Multzoa adierazten duen zenbakia hizkiz adierazteko erabili ohi diren kasuak dira: *'tik*' eta *'ko*'.

Gizonetan, ehun**eko** hamar...

Gizonetan, ehun**etik** hamar...

Azpimultzoari dagokionean, mugagabeen adierazi ohi da (ezaguna ez bada).

Gizonetan, ehuneko/etik zazpi**ø** (%7) azkarra da.

Gizonetan, ehuneko/etik zazpi**k** (%7**k**) badaki.

Hala ere, ehuneko mugatu eta jakin batez ari bagara (lehenago aipatu dugulako edo ezaguna delako), artikulua sartu behar da.

Gutxi iruditu zait bankuan eman didaten %6**a**.

## EHUNKA/\*EHUNDAKA

Erabili *ehunka* euskara batuan, *milaka* bezala.

## EKIN (\*IRTETEARI EKIN)

Geure testuak edertu nahi ditugunean, kalitatea kantitatean datzalakoan, larregi luzatzen ditugu esaldiak, esapide bihurrituak eta behar ez diren errepikapenak erabiliaz.

Joera horren erakusgarri izaten da *ekin* aditzaren gehiegizko erabilpena, askotan, erdarazko *proceder a* perifrasiaren berdina eginez. Nork ez ote du holakorik inoiz erabili?

\*Trenak **irteteari ekin** zion.                      Trena irten (egin) zen.

\*Zinegotzietan **botoa emateari ekin** zioten. Zinegotzietan **botoa eman** (egin) zuten.

\*Idazkariak akta **irakurtzeari ekin dio**. Idazkariak akta **irakurri** (egin) du.

## ELKARTE/ERKIDEGO/KOMUNITATE

Erabili *Euskal Autonomia Erkidegoa* eta *Nafarroako Foru Erkidegoa*.

### EMAN (\*ARAZOAK EMAN DIRA)

Zenbait esapidetan *eman* aditza oker erabiltzen dugu, esapide horiek gaztelaniaz *dar* aditzarekin egiten ditugulako.

Aditz honekin ezin ditugu, inoiz ere, *gertatu*, *jazo* edo *izan* aditzak ordezkatu.

Beraz, hauek baino:

\*Futbol-txapelketako azken jardunaldian sei berdinketa **eman** dira.

\*Arazo hori hamasei urteko gazteen artean **ematen** da.

...hobe hauek:

Futbol-txapelketako azken jardunaldian sei berdinketa **gertatu/jazo/izan** dira.

Arazo hori hamasei urteko gazteen artean **gertatzen** da.

Horrela ateratzen dira *urratsak eman*, *hitzaldia eman*... esapideak ere. Ohitura berri samarra da, euskarak berezkoagoa baitu horietan *egin* aditza erabiltzea: *urratsak egin*, *hitzaldia egin*...

### ERAMAN (\*ONDO ERAMATEN GARA)

Gehiegitan erabiltzen dugu aditz hau, erdaratik hartutako hainbat egituraren eraginez.

\*Gobernuak **daraman** politika.

Gobernuaren politika.

Gobernuak duen politika.

\*Ardura **hori daraman** epailea.

**Horretaz arduratzen den** epailea.

Ardura **hori duen** epailea.

\*Bilbora **daraman** bidea.

Bilboko bidea.

Bilbora **doan** bidea.

\*Ondo **eramaten** gara.

Ondo **konpontzen** gara.

### ERANSKIN/\*ERASKIN

Erabili *eranskin* euskara batuan.

**ERANTZUKIZUN/\*ERANTZUNKIZUN**

Erabili *erantzukizun* euskara batuan.

**ERANTZUN**

Kalkoaren mugan, batzuetan.

\*Diputatuaren ustez epaiak **aurreikuspenei erantzun** die.

Diputatuaren ustez epaiak **espero zena eman** du.

\*Erabaki horrek ez dakit zer nahiri **erantzun** dion.

Erabaki hori ez dakit zer nahiren **ondorio** den.

**ERASO/\*ERASOTU**

*Eraso* da aditza, ez *erasotu*, eta NOR-NORI-NORK kasuan (*dio*) erabiltzen da.

\***Elkar erasotu zuten** gobernuak eta sindikatuek.

**Elkarri eraso zioten** gobernuak eta sindikatuek.

Dena den, orainaldian *erasotzen* erabili.

**ERDARA/GAZTELANIA**

Gero eta jende gehiagok erabiltzen du *erdara* hitza *gaztelania*-ren sinonimotzat; baina *erdara* dira euskara ez diren beste hizkuntza guztiak, esate baterako: frantsesa, ingelesa, alemana..

Bide batez, esan dezagun Euskaltzaindiak *gaztelania* hitza hobesten duela, *gaztelera*-ren kaltetan.

**ERDIAK (ETA ERDIAK/T'ERDI)**

Euskaltzaindiak arautu duenez, bata ala bestea idazteko, testuinguruari erreparatu behar zaio. Orduak nahiz zenbatzeko gauzak adierazteko: *eta erdiak*. Agurretan eta antzerakoetan enfasia emateko: *t'erdi* (testu horietan helburua ez baita zenbatzea).

Ordu bat **eta erdiak** dira.

Jaun-andreok, agur **t'erdi!**

**ERE**

Erreferentzia egiten dion hitzaren edo sintagmaren atzean erabili behar dugu beti.

Gaur **ERE** sailburuek bilera egingo dute Ajuria Enean (*atzo beste bilera bat egin zuten*).

Gaur sailburuek **ERE** bilera egingo dute Ajuria Enean (*jende ugari egingo du bilera, horien artean, sailburuek*).

Gaur sailburuek bilera **ERE** egingo dute Ajuria Enean (*sailburuek gauza asko egin behar dute, besteak beste, bilera bat*).

Gaur sailburuek bilera egingo dute Ajuria Enean **ERE** (*sailburuek bilera bat baino gehiago egin behar dute gaur, eta horietako bat, Ajuria Enean*).

Hala ere, ez da modu egokian erabiltzen maiz:

\*Lehendakariak **ere** esan du...

\***Ere (bai)** esan du lehendakariak langabeziak behera egin duela.

\*Etorri den lankide berria bilbotarra da **ere**.

## ERLATIBO ALFERREKOAK

Erlatibozko perpaus asko errazago eman daitezke.

\*Euskal Herrian **garrantzitsuenak diren** lau sindikatuak...

Euskal Herriko lau sindikatu **garrantzitsuenak**...

\*Badira langile asko **pozik ez daudenak**.

Langile asko **ez daude pozik**.

## \*ERREGUAK ETA GALDERAK

Oraindik ere erabiltzen da formula hori, akta askori amaiera emateko; baina *erregua* hitzak nolabaiteko menderakuntza adierazten duenez, hobe dugu beste honetaz baliatzea: *eska-riak eta galderak*.

## ESAN (\*BAKARRIK ESAN...)

*Esan, aipatu, adierazi* eta horrelako aditzak laguntzailerik gabe erabiltzen ditugu batzuetan. Horrenbestez, honako esaldiak ateratzen zaizkigu:

\*Amaitzeko, bakarrik **esan**, hamabost egun daudela errekurtsioa aurkezteko.

Amaitzeko, bakarrik **esan nahi dut** hamabost egun daudela errekurtsioa aurkezteko.

*Egia esan* egitura erabil daiteke, bai, nahiz eta beste modu batzuk ere badiren horretarako: *egia esanda, egia esanik, egia esateko, egia esatearren...*

## ESKUIN/\*ESKUBI

Erabili *eskuina* euskara batuan. *Eskuma* hitzak Bizkaiko marka du, eta Euskaltzaindiak *eskuina* hobesten du. *Eskubi* ez erabili euskara baturako.

## ESTANDAR/\*STANDAR

Erabili *estandar* euskara batuan.

## ETA GERO (\*BILERA ETA GERO)

*Eta gero* aditzarekin batera joaten da: *bildu eta gero, erabaki eta gero...*; ez, ordea, izenarekin: *\*bilera eta gero, \*erabakia eta gero...* Horretarako badago beste modurik: *bileraren ondoren, erabakiaren ondoren*.

## ETZANA (LETRA ETZANA)

Letra etzana edo italikoa zeregin hauetarako erabiltzen da:

- Liburu, eskultura, film, argazki eta abarren izenburuak adierazteko.
- Beste hizkuntzetako hitzak markatzeko (*performance, collage, world music*).
- Hitz baten adiera berezitua markatzeko (*egia* edo *ni*-a filosofian).
- Hitz arrunt bat nabarmendu edo azpimarratzeko, hitz arrunta izanik idazle edo egileak nolabait asmo eta esanahi nabarmenagoaz jantzi nahi duenean.

**EZAGUTU (\*EUSKARA EZAGUTZEN DU)**

*Jakin* aditzaren ordeaz agertzen zaigu barra-barra.

\*Ingelesa **ezagutzen du**/\*Ingelesaren **ezaguera du**.

**Badaki** ingelesez.

Beste batzuetan, gaztelaniaren eraginez, *izan*, *ukan*, *egin* eta antzeko aditzak ordezkatzeko ditu.

\*Bere egitasmoak porrota **ezagutu zuen** hasiera-hasieratik.

Bere egitasmoak porrot **egin zuen** hasiera-hasieratik.

**EZIK/IZAN EZIK/EZ EZIK**

Itxuraz, behintzat, berdin samarrak izan arren, ezberdinak dira esanahiari dagokionez. Azter ditzagun hirurak.

1. Aditzekin erabil daiteke *ezik*:

Zuk lagundu ezik/ezean, ez dut lana inoiz bukatuko (*laguntzen ez badidazu, alegia*).

2. Salbuespen-adieran *izan ezik* erabili behar dugu beti.

\*Denak joan ziren bilerara, kulturako zinegotzia **ezik**.

Denak joan ziren bilerara, kulturako zinegotzia **izan ezik**.

3. Bestalde, *ez ezik* bereizita idatzi: \**ezezik*. *Ez bakarrik... baita...* esan nahi du eta beharrezkoa du *ere* partikula.

Gramatikako zuzentasuna **ez ezik/ez eze**, egokitasuna ere ziurtatu behar da.

**EZKUTATU/\*IZKUTATU**

Erabili *ezkutatu* eta *ezkutuan* euskara batuan.

**F****FROGA/PROBA**

Ez dute esanahi bera.

**Frogatu** aditzaren esanahiak badu nolabaiteko lotura egia/gezurra baieztatzearekin.

Ezin da inor erruduntzat jo, **frogarik** (baieztatu) gabe.

**Probatu** besterik da: 1. indarrak neurtzea. 2. edariak dastatzea.

Azterketa-**probetan** (neurtzeko) hamabost puntu lortu ditu.

Alkatea bera izango da sagardoa **probatzeko** (dastatzeko) egunean.

**FUNTZIONARIO/\*FUNTZIONARI**

Erabili *funtzionario* euskara batuan.

## G

**-GABE**

*Adingabe, amaigabe, arduragabe, baliogabe, bukatugabe...* horrela idazten dira, ez bereizita (*\*adin gabe*) edo marrarekin (*\*adin-gabe*).

**GAIXO/\*GAISO**

Erabili *gaixo* eta *gaixorik* euskara batuan.

**GARRANTZITSU (\*SUTE GARRANTZITSU BAT)**

Gero eta hiztegi pobregoa daukagu, eta horrela, adjektibo batekin gauza asko adierazi nahi dugu. Gaur egun, gaztelaniaren eraginez akaso, dena da garrantzitsua.

\*Istripu **garrantzitsu** bat gertatu zen.

Istripu **larri** bat gertatu zen.

\*Langabeziak **jaitsiera garrantzitsua** ezagutu du.

Langabeziak **behera egin du nabarmen**.

**GAURKOAN/GAUR**

*Gaurkoan* zerbaiten laburpena edo jarraipena denean erabil daiteke. Esate baterako: *atzo-ko prentsaurrekoan ez zuen ezer argitu, baina gaurkoan bai*. Horrenbestez, *gaurkoan* ezin da jarri *gaur* hitzaren lekuan.

\***Gaurkoan** lehendakaria Madrilera joango da.

**Gaur** lehendakaria Madrilera joango da.

**GAUZATU (\*ZUZENKETA GAUZATU)**

Horrelako aditzak (*gauzatu, garatu, burutu, ekin...*) neurririk gabe zabaldu dira euskaraz, esanahi argirik ez izan arren. Gehienetan, perifrasiak egiteko balio dute, hau da, esanahi osoko aditz bat baztertu eta, bere ordeztan, abstrakzioa jotzeko.

\*Esne berezi horren **salmenta** botiketan **gauzatzen da**.

Esne berezi hori botiketan **saltzen da**.

**GEHIENGO (\*HERRITARREN GEHIENGOA)**

Beharbada gaztelaniaren eraginez, gero eta gehiagotan aurkitzen dugu honako egitura hau: **NOREN** + *gehiengoa*, kontuan izan gabe beste hau ere badagoela eta jatorragoa dela euskaraz: **NOR** + *gehienak*.

\*Funtzionarioen **gehiengoak** baiezko botoa eman du.

Funtzionario **gehienek** baiezko botoa eman dute.

**GERATU (\*ARROPA ONDO GERATU)**

Gaztelaniaren kalko nabaria da hainbat egituratan.

\*Gonbidatuta geratu da.

Gonbidatu dute.

\*Alkandora hori oso ondo geratzen zaizu.

Alkandora horrek oso ondo ematen dizu.

**GERTATU**

Aditz hau, berez, *jazo* eta *izan* aditzen sinonimoa izan daiteke: *ezbehar bat gertatu da bulegoan*. Dena dela, azken boladan, perifrasiak egiteko erabiltzen ari da, hau da, esanahi osoko aditz bat baztertu eta, bere orde, abstrakzioa jotzeko.

\*Bost langile hilik gertatu dira.

Bost langile hil dira.

**GIZAGAIXO/\*GIZAGAJO, \*GIZARAJO**

Erabili *gizagaixo* euskara batuan. Hitz honek errukarria-edo esan nahi du, eta gizezkoiei bakarrik dagokie; emakumezkoiei, berriz, *gajo*, baina Euskaltzaindiaren arabera, lagun artean bakarrik erabili daiteke. Gizon zein emakumeentzat *gaixo* hitzak balio du, lagun bat errukarria dela adierazteko: *lagun gaixoak! / Antton gizagaixo! / Kattalin gajoa!*

**GIZON (\*LEGEGIZON)**

Ahaleginak egin behar ditugu sexismoaren aztarna guztiak euskaratik saihesteko. Horrelakoak dira ondorengoak, lanbideko gizon-emakumeak aipatzeko erabiltzen ditugun: *legegizon, bulegogizon, gerra-gizon, basagizon, elizgizon, olagizon, plazagizon...* Horiek gizezkoak bakarrik izendatzeko balio dute. Horien lekuan beste hauek erabili behar ditugu pertsona guztiak (gizon zein emakume) izendatzeko: *legelari, bulegari, soldadu/gerrari, baso-langile, eliztar, burdin langile, plazazale...*

**-GO/-ERIA**

Gaztelaniaz barra-barra sartzen ari dira hitz multzokariak, sexismoari aurre egiteko: *profesorado, alumnado, población fumadora...* Guk, auzoko ohituren morroi izan ohi garenez, horrelakoak esaten eta idazten ditugu maiz: *irakaslegoa, ikasleria, populazio erretzailea...* kontuan izan gabe *irakasleak, ikasleak eta erretzaileak* erabat neutroak direla euskaraz.

Nolanahi ere, gogora ezazue, Euskaltzaindiaren arabera, *-go* ezin dela erabili multzoak adierazteko, plurala hobesten duela horretarako, eta neurritz erabiliz gero, *-eria* atzizkia: *langileria/\*langilego*.

**GOGOIA DAUKAT/\*GOGOAK DAUZKAT**

*Gogo* hitza normalean singularrean erabiltzen da:

\*Lanean hasteko gogoak daukat.

\*Zurekin hitz egiteko gogoak daukat.

Lanean hasteko gogoa daukat.

Zurekin hitz egiteko gogoa daukat.



## GOSE, EGARRI, BELDUR

Gogora dezagun, era horretako sentipenak *izan/egon* aditzez adierazten direla.

Gose **naiz**, egarri **naiz**.

Goseak **nago**, egarriak **nago**.

Beldur **naiz** berandu helduko **ote** naizen.

Noren beldur **zara**?

Orain; sentipen horiei, “*handi*”, “*txar*” etab. bezalako adjektiboren bat edo zenbakiren bat eransten badiegu, orduan, badirudi *eduki/ukan* aditzak erabiliagatik esapidea ez dela hain trakets gelditzen.

Ez **zeukan** gose **txarra**.

Gose **handia** dauka/gose-gose da/oso gose da.

**Beldur** gaizto bat zuen.

Ez **daukat batere** beldurrik/ez **naiz batere** beldur.

## GURASOAK/\*AITAK

*Aitak, aitonak, semeak, jaunak, erregeak...* hitzak erabiltzen ditugunean, kontu handia izan behar dugu zeri egiten diogun erreferentzia, hitz egokia aukeratu ahal izateko.

\*Gaur **aiten** bilera izango da.

Gaur **gurasoen** bilera izango da (*bilerara aitak eta amak joango baitira*).

\*Zure **aitonak** etorri dira.

Zure **aiton-amonak** etorri dira (*etorri direnak aitona eta amona baitira*).

## GUSTURA, GUSTUKO/\*GUSTORA, GUSTOKO

Erabili *gustura, gustuko* euskara batuan.

## GUTXI GORABEHERA/\*GUTXIGORABEHERA, \*GUTXI GORA-BEHERA

Erabili *gutxi gorabehera* euskara batuan.

## GUTXIENGO/\*MINORIA

Erabili *gutxiengo* euskara batuan.

## H

## H

Hitz hauetan, askotan, *h*-a behar ez den lekuan jartzen dugu: *h*-rik ez duten hitzei *h*-a jartzen diegu, eta alderantziz. Honela idatzi behar ditugu (adi beltzei):

**H-rik gabe:** *Abil (trebea), aitzur, aizkora, alabaina, aran (fruitua), arbel, arkatz, arotz, arrisku, arroka, auzo, aztarna, deiadar, doan, erbeste, estu, iaz, ibai, ilargi, ildo, istorio (ipuina), leial, leun, neurri, orri (hosto), orrialde, ospitale, ostu, umore, ziuur.*

**H-arekin:** *bihurri, dohainik* (baina *doan*), *haran* (ibarra), *harea* (hondarra), *hari* (jostekoa), *harritu, harro, harrobi, haserre, heste, horma, hurko, lehia, lehiaketa, lehoi, leiho, oihal, oihan, oihartzun, oihu, saihestu*.

### HASI (\*MUSIKAREKIN HASI)

Gaztelaniaren eraginez, ZEREKIN gehiegi jartzeko joera daukagu euskaraz, batez ere *hasi, amaitu, jarraitu* eta antzeko aditzekin.

\*Aurkezpenarekin **hasiko gara**.

Aurkezpena **egiten hasiko gara**.

Aurkezpena **egingo dugu** jarraian.

### HAU GUZTIA/\*GUZTI HAU

Euskaltzaindiak dio *hau guztia, horietan guztietan, horiekin guztiekin* eta horrelako egiturak erabili behar direla. Hala ere, horiekin batera *hau guztiau, hauek guztiok...* ere erabili daitezke.

### HERRITAR/HIRITAR

Gaztelaniar *ciudadano, ciudadanía...* esaten dutenez, geuk ere, *euskal hiritarrak, hiritarrentzako argibideak* eta horrelakoak erabiltzen ditugu neurri gabe. Baina ez al dira naturalagoak euskaraz honako hauek: *euskal herritarrak, herritarrentzako argibideak...*?

### HIZKUNTZA (\*HIZKUNTZ-ARAZOAK)

Hitz hauek itsatsia dute amaierako *-a*: *hizkuntza, kultura, literatura, natura, eliza, burdina*. Dena dela, *-a* hori gal dezakete hitz elkarketan, baina hori gertatzen denean ezin dugu marrarik jarri.

\*Kultur-etxea                      \*Hizkuntz-arazoak

Kultur etxea                      Hizkuntz arazoak

Kultura etxea                      Hizkuntza arazoak

Kultura-etxea                      Hizkuntza-arazoak

### HOBE/\*HOBEAGO

Gaur egun askotan entzuten da *\*hobeago hobe-ren ordez*.

\*Oraingo itzulpenak aurrekoak baino **hobeagoak** dira.

Oraingo itzulpenak aurrekoak baino **hobeak** dira.

Berdin gertatzen da *hobe* esaten dugunean *hobeto* edo *hobeki* behar lukeenean.

\***Hobe esan, ...**                      \*Euskaraz **hobe** hitz egiten saiatuko naiz.

**Hobeto esan, ...**                      Euskaraz **hobeto** hitz egiten saiatuko naiz.

Eta alderantziz, hau da, *hobeto, hobe-ren ordez, lehenak NOLA galderari erantzuten baitio, eta bigarrenak, NOLAKOA galderari*.

\***Hobeto** lan hori **hobe** egiten baduzu.

**Hobe** lan hori **hobeto** egiten baduzu.

\**Hobe esan* txartzat jotzen du Euskaltzaindiak; erabili *hobeto esanda* edo *hobeki esanda*.

**IGARRI/\*IGERRI**

Erabili *igarri* euskara batuan.

**IKUSPEGI (\*IKUSPEGI HORRETATIK...)**

*Ikuspegi horretatik* bezalako esamoldeak sarritan erabiltzen ditugu gaztelaniaren eraginez, gai bati segida emateko-edo. Horren ordez, badugu beste biderik euskaraz: *alde horretatik*, *horiek horrela...*

**IMAJINATU/\*IMAGINATU**

Berez, *imajina* da elizetan-eta ikusgai dugun irudi bat (*Ama Birjinaren imajina*); hortaz, *\*imajina dezagun* eta horrelakoak esan edo idatzi beharrea, hobe dugu, eta berezkoago gainera, ondorengoak: *eman dezagun*, *demagun*, *egin dezagun kontu*, *jo ditzagun...*

**INGURUMEN/\*INGURUGIRO**

Erabili *ingurumen* euskara batuan gaztelaniazko *medio ambiente* edo frantseseko *environnement* hitzen ordain.

**INOR, EZER (\*EZ DA EZER EZ ENTZUTEN)**

Inguruko hizkuntzen bidetik, *inor*, *ezer* eta antzeko formak *ez* partikularik gabe erabiltzeko joera dugu, ezetza adierazteko.

\*Nork esan du hori? **Inork**.

Nork esan du hori? **Inork ez**.

Beste batzuetan kontrakoa gertatzen da, eta *ez* partikula birritan errepikatzen dugu.

\*Hemendik ez da **ezer ez** entzuten.

Hemendik ez da **ezer** entzuten.

**INPERTSONALAK**

Administrazioak egiten dituen gauza guztien atzean baten bat dago, izena eta kargua duen norbait, alegia. Hori dela-eta, egilea ezkututzen duten formak, ahal denean, baztertu egin behar dira.

\*Gobernut**ik** ekonomiaren garapena **lortu nahi da**.

Gobernu**ak** ekonomiaren garapena **lortu nahi du**.

\*Honen bidez jakinarazten **zaizu** behin-behineko zerrenda argitaratua **izan dela**.

Honen bidez jakinarazten **dizut** behin-behineko zerrenda argitaratu **dugula**.

**IRABAZI**

Hobe *irabazi* aditza erabiltzea, oraingo *\*garaipena lortu* baino. Berdin gertatzen da *galdu* eta *\*porrota jaso* bikotearekin ere.

## IRAKASGAI/\*ASIGNATURA

Erabili *ikasgai* (lección) edo *irakasgai* (asignatura) euskara batuan.

## IRAKURKETA (\*IRAKURKETA POSITIBOA EGIN)

Gaur egun *irakurketarik* baino ez da egiten esparru guztietan; baina, ez ahaztu euskaraz modu ugari dagoela honelako egiturak emateko.

\*Sailburuaren erantzunak **irakurketa** bikoitza du.

Sailburuaren erantzuna **bi aldetatik azter** daiteke.

\*Sindikatuak **irakurketa positiboa** egiten dute atzoko grebaren aurrean.

Sindikatuak **balioetsi** egiten dute atzoko greba.

## IRITZI/\*ERITZI

Erabili *iritzi*, *irizpen*, *irizpide* euskara batuan.

## ISLA/\*ISLADA

Erabili *isla* eta *islatu* euskara batuan, *\*islada* eta *\*isladatu*-ren ordez.

## ISOLATU

Euskaltzaindiaren arabera, aditz hori fisikaren eremuan bakarrik erabil daiteke. Bestelakoetan, *bakartu* eta *bakandu* aditzak proposatzen ditu.

\*Herri horretan etxe **isolatu** batzuk baino ez daude.

Herri horretan etxe **bakan** batzuk baino ez daude.

\*Kutsatutakoak gela berezi batean **isolatu dituzte**.

Kutsatutakoak gela berezi batean **bakartu dituzte**.

## ISTORIO/HISTORIA

*Istorio* hitzaren sinonimo batzuk honako hauek dira: *kontakizuna*, *pasadizoa*, *ipuina*, *ger-taera bitxia*... Ez nahastu, beraz, *historia* hitzarekin.

\*Oso **historia** xelebreak kontatzen ditu beti.

Oso **istorio** xelebreak kontatzen ditu beti.

\*Euskal literaturaren **istorioa** XVI. mendean hasi zen.

Euskal literaturaren **historia** XVI. mendean hasi zen.

## ITXARON (\*MIREN ITXARON DUT)

Euskaltzaindiak esan duenez, objektua biziduna denean NOR-NORI-NORK (*dio*) kasuan erabili behar da aditz hori; eta gainontzekoetan, NOR-NORK kasuan (*du*).

\*Hizlaria ez **dugu** gehiago itxarongo.

Hizlariari ez **diogu** gehiago itxarongo.

\*Bilboko autobusari hemen itxaron behar **diozu**.

Bilboko autobusa hemen itxaron behar **duzu**.

## IZAERA

Gaztelaniari orpoz-orpo jarraituz, gehiegi eta beharrik gabe erabiltzen dugun hitza.

\***Izaera publikoko** erakundeak.

Erakunde **publikoak**.

\*Emango den **baimenak behin-behineko izaera** izango du.

**Behin-behineko baimena** emango da.

## IZENEZ EZAGUTU

Talde bat izendatzerakoan maiz erabiltzen dugu horrelako egitura “...*izenez ezagutzen direnak*...”; baina, baditugu hori berori adierazteko modu hobeak.

\*EPSV **izenez ezagutzen direnak**.

EPSV **deritzenak/esaten zaienak**.

## IZENZALEKERIA

Atzizkien bidez aditzak zokoratu eta izen bihurtzen ditugu ustezko hizkera jasoan. Gaizki daudela esaterik ez dago, baina euskaraz naturalagoa da aditzaz baliatzea.

\*Behin betiko zerrendarekin batera **epaimahaiaren osaketa** jakinaraziko da.

Behin betiko zerrendarekin batera **epaimahaia nortzuek osatuko duten** jakinaraziko da.

\*Udalak parte hartuko du **jaialdiaren antolakuntza** eta **sarrerren salmantan**.

Udalak parte hartuko du **jaialdia antolatzen** eta **sarrerak saltzen**.

\*Debekatuta dago **aparatu arriskutsuen instalakuntza** eta **erabilpena**.

Debekatuta dago **aparatu arriskutsuak instalatzea** eta **erabiltzea**.

\*Ez dugu konprobatu bere **funtzionamendua**.

Ez dugu begiratu **dabilen ala ez**.



## JARDUN/\*IHARDUN

Erabili *jardun* forma guztietarako: *jarduna, jardumaldia, jarduera*...

## JARRAITU (\*BILERAREKIN JARRAITU)

Objekturik ez badago *du* aditza erabili, eta aldiz, objektua baldin badago *dio*: *lehengo bulegoan jarraitzen du lanean/nagusiak esandakoari jarraitu zion lana behar bezala amaitu arte*.

Lehen esan dugun bezala, *zerekin jarraitu* forma okertzat jotzen da. Gauza bera gertatzen da beste aditz batzuekin ere: *hasi, amaitu*, eta antzerakoekin.

\*Bazkalostean jarraituko dute **bilerarekin**.

Bazkalostean jarraituko dute **bilera egiten**.

\*Bihar hasiko naiz **txostenarekin**.

Bihar hasiko naiz **txostena egiten**.

Bestalde, *jarraitu*-ren esanahi berekoak dira honako hauek ere: *aurrera joan*, *oraindik ez amaitu*, *bere horretan iraun*, *martxan egon*...

Ohitura horrek bizirik **jarraitzen du** gure herrian.

Ohitura horrek bizirik **dirau** gure herrian.

## JASAN (\*ALDAKETAK JASAN)

Gaztelaniazko *sufrir* guztiak ez dira *jasan* euskaraz.

\*Dekretu-egitasmoak aldaketa batzuk **jasan** ditu.

Dekretu-egitasmoak aldaketa batzuk **izan** ditu.

Bidenabar, gogora dezagun *\*jasatzen* txarto dagoela, eta *jasaten* esan behar dela, *-n* amaiera duten aditzetan bezala: *irteten*, *eteten*, *egoten*...

## JOAN

Ez da egokia, mugimendurik ez dagoenean.

\*Datu guztiak bildu arte ez **noa** txostenik egitera.

Datu guztiak bildu arte ez **dut** txostenik egingo.

## JOKATU/JOLASTU

Bereiztu beharra dago *jokatu* eta *jolastu*: *jolastu* umee-eta egiten dute, inolako lehiarik gabe *sokasaltoan jolastu*, *panpinekin jolastu*...; *jokatu*, aldiz, zerbait jokoan dagoenean, baita umeen artean bada ere, *kartetan jokatu*, *futbolean jokatu*, *pilotan jokatu*, *dirua jokatu*...

*Zertan* edo *zer* dira ohiko formak: *futbolean jokatu*, *xakean jokatu*... eta *dirua jokatu*, *futbol partida bat jokatu*...

\*Pilotalekuan ezin da **futbolera jolastu**.

Pilotalekuan ezin da **futbolean jokatu**.

Bestalde, kontuan izan *jolastu* esateko beste bide hauek ere baditugula euskaraz: *jolasean ibili*, *jolas egin*, *jolasean ari izan*...

# K

## KASUA

Epaitegietan *auziak* edo *auzigaiak* izaten dira, ez *kasuak*.

\***Kasu** horretan oraindik ez dute lekukoek deklaratu.

**Auzi** horretan oraindik ez dute lekukoek deklaratu.

\***Kasu** horrek ez du eraginik izango lanpostu banaketan.

**Auzigai** horrek ez du eraginik izango lanpostu banaketan.

## KASUAN

Beharrik gabe erabiltzen dugu askotan, eta ez dio informaziorik gehitzen esaldiari.

\*Titularraren **gaixotasunaren kasuan**, ordezkoa jarriko da haren tokian.

Titularra **gaixorik badago**, ordezkoa jarriko da haren tokian.

\*Akats larriak egiten diren **kasuetan** ez da azterketa zuzentzen jarraituko.

Akats larriak egiten **direnean** ez da azterketa zuzentzen jarraituko.

## -KETA

Erdarazko *-ción* bukaeraren ordeztu erabiltzen dugu sistematikoki, baina batzuetan ez da egokia, esaterako:

*oposaketa	oposizio
*koordinaketa	koordinazio
*inprimaketa	inprimatze

## KIKIRIKI!

*-Ki* atzikia sarri erabiltzen da modu-aditzondoak egiteko, eta askotan beharrik gabe, *ozenki hitz egin zuen* edo *ozen hitz egin zuen* gauza bera baitira. Gaztelaniazko *-mente* bukaeradun adjektiboak mailegatzekoan ere erabiltzen dugu: *formalki, demokratikoki, ofizialki...* Baina, badira beste bide batzuk ere gauza bera esateko.

\*Obra **legalki** egiteko baimena behar da.

Obra **legez** egiteko baimena behar da.

Obra **lege barruan** egiteko baimena behar da.

\*Arazoa **sakonki** aztertu behar da.

Arazoa **sakon** aztertu behar da.

## -KO/-TAKO

NOLAKO galderari erantzuten dioten sintagmetan *-ko* erabiliko dugu.

\*Hiru **hankatako** mahaia. \*Bost **orritako** txostena.

Hiru **hankako** mahaia. Bost **orriko** txostena.

Oinarrian zenbatzaileraren bat dagoenean eta adina, prezioa, neurria, pisua... adierazten duten izenlagunak osatzen direnean ere, *-ko* hobesten da.

\*Bost **kilometrotako** bidea. \*Hiru **urtetako** umea. \*Bi **litrotako** botila.

Bost **kilometroko** bidea. Hiru **urteko** umea. Bi **litroko** botila.

Baina *-ta* atzikia erabili beharrekoa izan daiteke zenbaitetan. Adibidez, NONGO galderari erantzuten zaionean:

\***Hamaika herriko** txirrindulariak bildu dira hemen.

**Hamaika herritako** txirrindulariak bildu dira hemen.

## KOKATU

*Egon* aditza nahikoa izango dugu gehienetan.

\*Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia Gasteizen **kokatzen da**.

Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia Gasteizen **dago**.

\*Asteleheneko bileran jende gehiegi zegoen eta ez nekien non **kokatu**.

Asteleheneko bileran jende gehiegi zegoen eta ez nekien non **jarri/eseri**.

## KOLEKTIBO

Gaztelaniaz hizkera sexista saihesteko askotan erabiltzen den hitza dugu; nolahi ere, kontuan izan behar da euskaraz ez dugula arazo bera.

\*Diputazioko behin-behineko langileen **kolektiboak** oposizioetarako deialdia egiteko eskatu du.

Diputazioko behin-behineko **langileek** oposizioetarako deialdia egiteko eskatu dute.

## “KOMATXOAK”

Nagusiki bi gauzatarako erabiltzen dira:

- Inoren hitzak diren bezalaxe (hitzez hitzeko aipamena) gure testu barruan jasotzeko.
- Hitz batek duen esanahiaren guztiz alderantzizkoa esateko; adibidez, *Oso pertsona “kultoa”* da idazten duenak esan nahi du pertsona hori ez dela batere kultoa, ezjakin hutsa baizik.

## KOMUN/\*AMANKOMUN

Euskara batuan *komun* edo *guztiak* erabili.

## KONFIANTZA/\*KONFIDANTZA

Euskara batuan *konfiantza* erabili.

## KONPARATU (\*ZUREKIN KONPARATUTA)

Maiz askotan, *bestearen aldean* eta antzeko esapide jatorrez baliatu beharrean, gaztelaniak bultzaturik agian, *bestearekin konparatuta* eta gisakoetara jotzen dugu.

\*Amaia, **zurekin konparatuta**, gaztea da.

Amaia, **zure aldean**, gaztea da.

## KONPROMISO/\*KONPROMEZU

Euskara batuan *konpromiso* erabili; gogoan izan, hala ere, Hegoaldeko hitza eta herri-mai-lakoa dela. *Konpromisoa hartu* baino hobe da *hitz eman* esatea.

## KOPURU

Hau ere beharrik gabe erabiltzen dugu sarri. Gauza bera adierazteko beste modu naturalago batzuk badaude.

\*Diru-**kopuru** handia biltzea espero dute diputazioek aurtengo errenta kanpainan.

**Dirutza** handia biltzea espero dute diputazioek aurtengo errenta kanpainan.

\*Jende **kopuru** handia aurkeztu da hizkuntza-eskakizunen azterketetara.

Jendetza **handia/lagun asko** aurkeztu da hizkuntza-eskakizunen azterketetara.



**KOSTA(TU) (\*HORREK ASKO KOSTATZEN DU)**

*Kosta(tu)* aditza *du* aditz laguntzailearekin erabiltzen dute batzuek, *da* laguntzailearekin erabili beharrean:

\*Zenbat **kostatzen du** proiektu horrek?

\*Oso gutxi **kostako digu**.

Zenbat **kostatzen da** proiektu hori?

Oso gutxi **kostako zaigu**.

**LABURTZAPENAK**

Hiru mota ditugu: laburdurak, siglak eta ikurrak.

**Laburdurak**

Hizkuntza bakoitzak bere laburdurak ditu. Laburdurak puntuaz idazten dira, eta deklinatzerakoan deklinabide marka puntuaren ondoren jartzen da marrarik gabe. Dena dela, tau-lak, zerrendak eta horrelakoak egiteko erabiltzen direnez, ohikoena da ez deklinatzea; testuaren barruan, beti ere, ahalik eta gutxien erabili behar ditugu.

\*Zerrendan jarritako NAN **zk.** batzuk ez daude ondo.

Zerrendan jarritako NAN **zenbaki** batzuk ez daude ondo.

Izen-abizenak	NAN	txartel- <b>zk.</b> a

**Ikurrak**

Normalean nazioartekoak dira, batez ere, neurtzeko unitateak, txanponak... adierazteko, eta ez da punturik jartzen. Deklinatzeko, marra jartzen zaie; hitz osoa aurrean edukiko bagenu bezala.

\*m./m

5 m-tik egin du salto.

**Siglak**

Siglak letra larriz eta punturik gabe idazten dira, eta deklinatu, ahoskeraren eta izen bizi-gabeen arabera deklinatu behar ditugu. Kasu-atzizkia, orokorrean, loturik (marrarik gabe), jarraian eta letra xehez idazten da, hiru salbuespenetan ezik:

Siglaren amaiera eta kasu-atzizkiaren hasiera letra bera dugunean (*AEK-k jakinarazi duenez.../UPN-n Sanzek agintzen du*).

Sigla *-r-* letraz amaitu eta kasu-atzizkia bokalez hasten denean (*UNFOR-eko buruek adierazi dutenez...*).

Letra larriz idatzitako testu zati eta izenburuetan (*EAE-KO ADMINISTRAZIOA*). Siglak izen bereziak direnez, artikulurik gabe idatziko ditugu; hala ere, zenbait sigla lexikalizatu dira edo bide horretan daude, eta, hortaz, artikulua onartzen dute (*HIESa, NANA, BEZa...*), eta baita letra xehea ere hainbat kasutan (*Unesco, Unicef...*).

## LAGUNDU, LAGUN(DU), LAGUNTZEN

Euskaltzaindiak *lagundu dio* (Heg.) eta *lagundu du* (Ipar.) biak onartzen ditu, eta biek esanahi bera dute, alegia, bi hauek:

1. Lagun egin (norbaitekin joan: etxeraino lagun egin diot adiskideari = etxeraino lagundu diot lagunari = etxeraino lagundu dut adiskidea).
2. Laguntza eman (hori egiten lagunduko dizut = hori egiten lagunduko zaitut).

## LAGUN/PERTSONA

Bi pertsona edo gehiagoren gainean ari bagara, *lagun* ere erabil daiteke *pertsona*-ren orde; hori bai, *lagun* hitzak zenbatzaile zehaztu edo zehaztugabea eskatzen du: *bost lagun, hainbat lagun...* Bakarra denean *pertsona* erabiliko dugu: *pertsona bat etorri zen bilerara, pertsona bakarrak egin du lan hori*.

\*Bost **pertsona** etorri dira.

\***Lagun** bat etorri da.

Bost **lagun** etorri dira.

**Pertsona** bat etorri da.

## LA-LA-LA!

Gaztelaniazko *que* guztiak ez dira *-la* euskaraz.

\*Goazen azkar, berandu **dela**.

\***Noski** irakurriko **dudala!**

Goazen azkar, berandu **da-eta**.

Irakurriko **ez dut, ba!**

\*Erdi-erdian **jotzen dudala!**

\*Mutil **bat** dago oso polita **dela**.

**Baietz** erdi-erdian **jo!**

Oso mutil polita dago.

## LAN

Hitz horretatik eratorritakoak lotuta idatzi: *lanaldi, lanbide, lanegun, langela, lanleku, lantoki, lanuzte*.

Perifrasiekin kontuz, beharrik gabe erabiltzen baititugu askotan, erdarazko *trabajos de, tarea de...*: *kudeaketa-lanak egin ditu, edo kudeatzaile(a) izan da gauza bera baitira*. Gauza bera *koordinazio-lanak egin* edo *koordinatu*.

Hona hemen *egun* berebarekin lotuta, administrazioan erabiltzeko adostu diren hainbat termino:

<i>día festivo</i>	jaiegun
<i>día hábil</i>	egun baliiodun
<i>día inhábil</i>	egun baliogabe
<i>día laborable</i>	lanegun
<i>día natural</i>	egun natural; egutegiko egun

## LAU

Orduak adierazterakoan *-r-* gehituta deklinatu (*arratsaldeko laurak dira*), eta zenbaki denean *-e-* gabe (*lauan, lautik...*).

\*Maiatzaren **lauean** bukatu zen izena emateko epea.

Maiatzaren **lauan** bukatu zen izena emateko epea.

**LEGEALDI, LEGEGINTZALDI, AGINTALDI**

Komeni da hitzok bereiztea, izan ere, joera dugu hauteskunde arteko denborari *legealdi*, *legegintzaldi* eta *agintaldi* deitzeko inolako bereizketarik egin gabe.

**Legealdi:** lege batek indarrean dirauen denbora.

**Legegintzaldi:** legeak egiten dituzten batzarrek (Eusko Legebiltzarrak, Espainiako Parlamentuak...) dirauten denbora. Legebiltzarrean, otsailetik uztaileta eta irailetik abendura.

**Agintaldi:** bestelakoetan, esate baterako, udal hauteskundeen arteko denbora agintaldia da.

**LEHENBAILEHEN/\* LEHENBAITLEHEN**

Euskara batuan *lehenbailehen* erabili.

**LEHENDAKARI**

Normalean EAeko lehendakariaz ari garenean erabiltzen dugu. Beste kasu batzuetarako ere erabil daiteke, aurretik nongoa den esanez; dena dela, baditugu beste hitz batzuk ere: *presidente*, *estatuburu*, *mahaiburu*.

**LEHENGO/BESTE**

Lehenengoa (*lehenago*) iraganari begira dago, eta bigarrena (*beste*), etorkizunari.

\***Beste egunean** hitz egin zuen Legebiltzarrean.

**Lehenago egunean** hitz egin zuen Legebiltzarrean.

**Beste egun batean** hitz egingo du Legebiltzarrean.

**LETRATU, LETRADU**

Euskaltzaindiak *Hiztegi Batuan* horrela jasotzen ditu:

**Letratu:** ikasia, letraduna.

**Letradu:** legelaria (Hegoaldean).

**LETREIATU/\* DELETREATU**

Euskaltzaindiak *letreiatu* forma jaso du Hiztegi Batuan; *deletreatu*, ordea, ez. Ez ahaztu *letreiatu* hori gustatzen ez bazaigu-edo, *letraz letra esan* ere badugula.

**LIBURUZAIN/\* BIBLIOTEKARI**

Euskara batuan erabili *liburuzain*.

**LIZENTZIADUN/\* LIZENTZIATU**

Lehena hobesten du Euskaltzaindiak.

Zuzenbideko/Zuzenbidean **lizentziaduna**.

**LOTU**

Egitura egokia ZERI lotu da, ez NORA lotu, ezta ZEREKIN lotu ere.



\*Bere iritzia lehengoan **mantendu** du.  
Lehengo iritziari **eutsi** dio/**Eutsi** egin dio bere iritziari.  
\*Nola edo hala **mantendu** zuen oreka.  
Nola edo hala **gorde** zuen oreka.

**MANTENTZE-LANAK/\*MANTENIMENDU**

\**Mantenimendu* forma okerra da euskaraz, erabili *mantentze*.

**MENDERATU**

Hizkuntzak jakin edo hitz egiten dira, ez menderatu.  
\*Oso ondo **menderatzen** du euskara.  
Oso ondo **daki** euskaraz/Oso ondo **hitz egiten** du euskaraz.

**MENDERATU FALTSUAK**

Perpaua menderatu asko faltsuak izaten dira, eta azpian esaldi sinpleagoak ezkututzen dituzte (*berriz, baina, hala ere, nahiz eta, arren...*).

\*Langileen erdiak euskaldunak diren **bitartean**, beste erdiak, erdaldunak.  
Langileen erdiak euskaldunak **dira, eta** beste erdiak, erdaldunak.  
\*Bilboko biztanlegoak behera **egin badu**, Gasteizkoak gora.  
Bilboko biztanlegoak behera egin du, eta Gasteizkoak, **berriz**, gora.  
\*Tropeletik ihes egin zuen helmugatik bi kilometrorra **harrapatua izateko**.  
Tropeletik ihes egin zuen, **eta** helmugatik bi kilometrorra **harrapatu zuten**.

**MEREZI IZAN (\*PENA MEREZI DU)**

Euskaraz badira gauzak *merezi dutenak*, baina ez *pena merezi dutenak*.

\***Pena merezi du** lanean saiatzea, gauzak txukun egiteko.  
**Merezi du** lanean saiatzea, gauzak txukun egiteko.  
Gogoratu *-tzea* horrek ez duela ergatiboa hartzen.

**MERKATU/\*MERKETU**

Euskara baturako erabili *merkatu, merka, merkatzen*.

**METEOROLOGIA/\*METEOROLOGIA**

Ia beti gaizki erabiltzen dugun hitza. Euskara batuan erabili *meteorologia*.

**MILA**

Gaztelaniaren eraginez, *mila* zenbakiaz baliatzen gara kopuru handiak adierazteko, baina euskara jatorrean bada beste biderik.

\***Mila bider** esan nion lana garaiz amaitzeko.  
**Hamaika bider/Hamaikatxotan/Makina bat bider** esan nion lana garaiz amaitzeko.

Bestalde, *zenbana* galderari erantzunez, gaizki erabili ohi da.

\***Milana** pezeta eman nien.                      \***Lau milana** pezeta banatu nituen.  
**Mila bana** pezeta eman nien.                      **Launa mila** pezeta banatu nituen.

**MIN (\*MIN EMAN DIDAZU/\*MIN EGIN NAIZ)**

Mina, euskaraz, *egin* eta *hartu* egiten da; hala eta guztiz ere, gero eta gehiago entzuten dira honelakoak:

\***Min eman** didazu besoan.

\***Min egin** naiz orkatilan.

**Min egin** didazu besoan.

**Min hartu** dut orkatilan.

**MINIMO (\*ZERBITZU MINIMOAK)**

Matematiketan egokia den arren, bestelako *minimo*-ak adierazteko beste baliabide batzuk erabiliko ditugu euskaraz.

\*Greba garaian **zerbitzu minimoak** bete beharko dira.

Greba garaian **behar-beharrezko/premiazko lanak** egin beharko dira.

**MINISTERIO/\*MINISTERGO, \*MINISTERITZA, \*MINISTRARITZA**

Erabili *ministerio* euskara batuan. Era berean, erabili *ministro* eta ez *\*ministrari*.

**MINUTU/\*MINUTO, SEGUNDO/\*SEGUNDU**

Erabili *minutu* eta *segundo* euskara batuan.

**MODUAN, MODURA**

Zenbaitetan desegoki erabiltzen ditugu hitz hauek:

\*Erakundeko ordezkari **moduan** joan zen.

Erakundeko **ordezkari** joan zen.

\*Soldata **modura** 2.000 pezeta ematen zioten.

2.000 pezetako **soldata** zuen.

Erabilera zuzenak:

Zuzendariak **modu txarrean** erantzun zion.

Aholkulariak **esandako moduan** prestatu dut txostena.

Mahai gainean **txosten moduko bat** ikusi genuen.

**Beste modura** esango dut.

**MONETA/\*MONEDA**

Hitza *moneta* da euskara batuan, baina hobe *diru* edo *dibisa*. Euskaltzaindiak *diru-batasuna* onesten du, ez *moneta-batasuna*.

**MOTOR/\*MOTORE**

Erabili *motor* euskara batuan, bai ibilgailua bai makina izendatzeko.

**MOZTU**

*Cortar* aditza ez da beti *moztu*. Zenbaitetan *eten*, *itxi*, *kendu* hitzak egokiagoak izango dira, testuinguruaren arabera.

\*Idazkariarekin telefonoz hitz egiten nengoela, deia **moztu** egin zen.

Idazkariarekin telefonoz hitz egiten nengoela, deia **eten** egin zen.

\*Lakuarako bidea **moztu** egin behar izan dute.

Lakuarako bidea **itxi** egin behar izan dute.

\*Udaletxean argi-indarra **moztu** egin zutenez, ezin izan genuen lana bukatu.

Udaletxean argi-indarra **kendu** egin zutenez, ezin izan genuen lana bukatu.

## MUGATU

Gaztelaniaren eraginez, honelako esaldiak aurkitzen ditugu edonon:

\*Teknikarion zeregina gomendioak ematera **mugatzen** da.

Euskaraz beste era batera adieraz ditzakegu horrelako esaldiak:

Teknikarion zeregina gomendioak **ematea** da/**ematea besterik ez** da.

## MURGILDU

*Sumergir guztiak ez dira murgildu.*

\*Sindikatuak **negoiazioetan murgildurik daude.**

Sindikatuak **buru-belarri ari dira negoziatzen.**

\*Administrazioko langileak **greba gogor batean murgildu dira.**

Administrazioko langileak **greba gogorra egiten ari dira.**

\*Herriko **jaietan murgilduta gaude.**

Herriko **jaiak bete-beteen ospatzen ari gara.**

# N

## NAFAR/\*NAPAR, AFARI/\*APARI

Erabili euskara batuan: *nafar, afari...*

## NAHITAEZ/NAHI ETA NAHI EZ/\*NAHITANAHIEZ

Erabili euskara batuan bi hauek: *nahitaez, nahi eta nahi ez.*

## NEKAZARITZA/\*NEKAZAL

Erabili euskara batuan *nekazaritza* hitza. Honela, elkarketa egiterakoan idatzi *nekazaritza(-)politika* eta ez *\*nekazal politika*. Era berean, idatzi *finantza(-)arazoak* eta ez *\*finantzal arazoak*, *merkataritza(-)gune* eta ez *\*merkatal gune*, etab.

## NEURRI

Askotan *neurri* hitza behar-beharrezkoa izaten dugu, baina zenbaitetan desegoki erabiltzen dugu.

\*Nagusi berriak teknikarion gaitasuna **zein neurritakoa** zen jakin nahi izan zuen.

Nagusi berriak teknikarion gaitasuna **zenbaterainokoa** zen jakin nahi izan zuen.

\***Neurri politikoak** hartu beharko dituzte.

**Erabaki politikoak** hartu beharko dituzte.

### NEURTU (\*LAU METRO NEURTZEN DU)

Neurrien berri izan nahi dugunean, askotan gaztelaniak eragindako formulak erabiltzen ditugu. Euskaraz baditugu bestelako baliabideak horiek adierazteko.

\*Zenbat **neurtzen** du mahai honek?

**Ze neurri** du mahai honek?/**Zein da** mahai honen **neurria**?

\*Lau metro **neurtzen** ditu.

Lau metro **luze da**/Lau metroko **luzera dauka**.

Berdin gertatzen da hauekin: *lau metro zabal da, hamar metro sakon dauzka...*

### -(e)NEZ/-(e)NEZ GERO

Berezi biak: lehenengoak, besteak beste, iritzia adierazten du (*zerbitzuburuak esan duenez, lankide asko gripeak jota daude*); eta bigarrenak, kausalitatea-edo (*zerbitzuburuak esan duenez gero, sinestu egin beharko*).

### NIRE, BERE... (\*NIRE AMAREKIN BIZI NAIZ)

Ahaidetasuna adierazten duten izenekin ez dago zertan izenordain posesiborik erabili euskaraz.

\***Nire amarekin** joan naiz udaletxera.      \***Nire arrebarekin** etorri naiz.

**Amarekin** joan naiz udaletxera.      **Arrebarekin** etorri naiz.

Dena dela, izenordaina jarri behar badugu, pluralean ematea da jatorrena euskaraz.

\***Nire amonak** hori egiten zuen.      \***Amaia nire etxera** etorriko da.

**Gure amonak** hori egiten zuen.      **Amaia gure etxera** etorriko da.

### NIRETZAT/NIRE USTEZ

*Nire ustez, nire iritziz...* adverbioen ordean, *niretzat* erabiltzeko joera izaten dugu. Argi ibili!

\***Niretzat/niri dagokidanez**, emaitzak ez dira hain onak.

**Nire ustez**, emaitzak ez dira hain onak.

### NOIZ ARTE, NORAINO

Orokorrean honela erabiliko ditugu kasu hauek: denbora adierazteko hobe da NOIZ ARTE erabiltzea; lekua adierazteko, berriz, erabili NORAINO kasua.

Sailburua Madrilera joan da eta astelehenera **arte** ez da itzuliko.

Parke **berriraino** iritsi ziren bertan egindako lanak ikusteko.

Kontuan izan hala ere:

Batzuetan NORAINO kasua denbora adierazteko erabil daitekeela: *gaurdaino, oraindaino...*

Beste batzuetan, leku eta denbora nozioak nahiko nahastuta agertzen direla: *Noiz arte? Madrilera arte* (Madrilera heldu arte).



## NOMINALIZAZIOAK (SING./PLUR.)

\*Agiriak **ekartzea** ahaztu **zaizkit**.

Agiriak **ekartzea** ahaztu **zait**.

Horrelako nominalizazioetan (*ekartzea*), objektua (*agiriak*) plurala izan arren, singularrean jarri behar dugu aditz nagusia.

\*Informatikako programa **horiek badakizkit erabiltzen**.

Informatikako programa **horiek badakit erabiltzen**.

## NON/ZEREZ (HEGAZKINEAN/HEGAZKINEZ)

Biak daude ondo baina, mugatua (singularrean zein pluralean) hobe da NON kasua erabiltzea.

\*Nire autoa hondatuta dagoenez, **enpresako autoaz** joan naiz.

Nire autoa hondatuta dagoenez, **enpresako autoan** joan naiz.

Eta mugagabea, berriz, ZEREZ kasua.

\*Madrilgo ikastarora **hegazkinean** joango gara.

Madrilgo ikastarora **hegazkinez** joango gara.

## NONAHI/NON-NAHI/\*NON NAHI

Erabili *nonahi* eta *non-nahi* euskara batuan. Gauza bera adierazteko *edonon* ere badugu, eta bizkaieraz, *nongura*.

## NONDIK/NON (\*HORTIK DABIL)

Askotan, gaztelaniaren eraginez-edo, NONDIK kasua NON kasuaren ordean erabiltzen dugu.

\*Idazkari berria **bulegotik** ikusi dut gaur goizean.

Idazkari berria **bulegoan** ikusi dut gaur goizean.

\*Eta zuzendaria? **Madriletik dabil**.

Eta zuzendaria? **Madrilen dabil**.

Telefonoz hitz egiterakoan ere askotan erabiltzen dira horrelakoak:

\***Hortik dabil** Patxi?

Patxi **hor (al) dago?**

Era berean, gogoan izan *nonbait hor* eta horrelakoak oso baliagarri ditugula.

\*Eta Ander? **Hortik** egongo da.

Eta Ander? **Nonbait hor** egongo da.

\*Utzi espediente hori **hortik**.

Utzi espediente hori **nonbait hor**.

## NONGO/NOREN

Ez da samurra bereiztea. Oro har, NONGO kasuak “jatorria” (NONGO), “denbora” (NOIZKO) edo “helburua” (ZERTAKO) adierazi ohi ditu.

Irungo (NONGO) udala.

Larunbateko (NOIZKO) osoko bilkura.

Laneko (ZERTARAKO) tresna.

Aldiz, NOREN kasuak *jabetza* edo *zeri buruzkoa* adierazten du, eskuarki. Demagun *udaletxe-ek* zerrenda bat argitaratzen dutela. Kasu horretan *udaletxeen* zerrenda idatziko genuke. Gauza bera idatziko genuke *udaletxeei* buruzko zerrenda bat argitaratuko balitz (kasu horretan *udale-txe-zerrenda* idaztea ere litekeena da). Baina, *udaletxeetako* zerrenda idatziko bagenu, zera adieraziko genuke: *udaletxeetan* badela zerrenda bat (ez dakigu *norena*, ez eta *zeri buruzkoa*). Zalantzazkoetan, ordeza ezazu deklinabide-kasua erlatibozko perpaus batez: azpian NON kasua badago, NONGO erabili, eta NORK kasua badago, berriz, NOREN.

Udaletxean dagoen isiltasuna = Udaletxe**ko** isiltasuna.

Udaletxeak gordetzen duen isiltasuna = Udaletxearen isiltasuna (*hemen udaletxea udalaren metafora da*).

Gehientsuenetan, arauak halatsu jokutzen du. Guztiarekin ere, errealitatea askoz ere konplexuagoa da araua baino, edo bestela, araua ez da hain ximplea. Hala, hiztunek esan ohi dute: *Etxeko giltzak galdu ditut mendian (etxean dauden giltzak?)*. Horrelakoetan zer egin? Erabilerari jarraitu.

## NORAEZEAN, NORA EZEAN

Erabili *noraezean* euskara batuan, *nahitaez* edo *ezinbestean* adierazteko.

Ez naiz horrelako ospakizunetan azaltzen **noraezean** baino.

Erabili *nora ezean*, *nora gabe* adierazteko.

Itzasontzia **nora ezean** zihoan.

## NORANZKO/\*NORANTZA

Erabili euskara batuan *noranzko*.

\*Norabide baten bi **norantzakoak**.

Norabide baten bi **noranzkoak**.

## NORBERA/BAKOITZA

Sarri askotan, *norbera*, *nor bere* eta antzekoen ordeza, *bakoitza* erabiltzeko joera handia dugu. Erabilera hori, berez, ez da okerra, baina bai neurririk gabea, eta *norbera* baztertzea ekarri du.

\***Bakoitzak** ikus dezala zer egin.

**Norberak** ikus dezala zer egin.

## NORK BERE/\* NORBERAK BERE

Hiperzuzenketaz egindako akatsa.

\***Norberak bere** lana egin behar du.

**Nork bere** lana egin behar du.

**NOR-NORK/NOR-NORI-NORK**

Zenbaitetan, NOR-NORK aditzaren ordez, NOR-NORI-NORK aditza erabiltzen dugu.

\*Zuri ez **dizu** ezagutuko.

\*Zuri ikusi **dizu**.

Zu ez **zaitu** ezagutuko.

Zu ikusi **zaitu**.

**NORTASUNA**

Zenbaitetan *nortasun* hitza desegoki erabiltzen da.

\*Ez dugu jakin **atxilotuaren nortasuna**.

Ez dugu jakin **nor atxilotu** duten/**atxilotua nor** den.

**NOSKI (BAI NOSKI!/\*NOSKI BAIETZ!)**

Erabili euskara batuan *Bai, noski!* Edo bestela *Jakina!, Horixe!, Bai segurki!, Bai horixe!...*

**NOTARIO/\*NOTARI**

Erabili *notario* euskara batuan.

**O****OBJETIBO/\*OBJETIBO**

Erabili euskara batuan *objektibo*. Era berean, erabili *adjektibo, objektu, subjektu, subjektibo, objektzio* eta *objektore* (azken biak *kontzientzia(-)objektzio* eta *kontzientzia(-)objektore* hitz elkartuetan bakarrik erabiltzeko; hala ere, *kontzientzia(-)eragozpen* eta *kontzientzia(-)eragozle* sinonimoak erabiltzea hobe).

**OHI**

*Ohi* partikulak zenbait arazo sortzen dizkigu.

\*Madrilen **diputatu ohia** agertuko da bileran.

\*Madrilgo **diputatu ohia** agertuko da bileran.

Joskera honek beste konponbide bat eskatzen du.

Madrilen **diputatu izana** agertuko da bileran.

**OHIKO/OHIZKO**

Euskara batuan biak daude ondo. Euskaltzaindiak gogorarazten du, hala ere, *ohiko* dela tradizioan nagusitzen dena eta Iparraldean bizi den forma bakarra.

**OMEN, EI, BIDE**

*Omen* eta *ei* sinonimoak dira eta zilegi da bata zein bestea erabiltzea. Baina *bide* ez da horien sinonimoa. Horrenbestez, ez dira gauza bera:

Alkatea Donostian **omen** da.

Alkatea Donostian **bide** da.

Lehenengo esaldiaren bidez norbaiti berri hori entzun diogula ematen dugu aditzera. Bigarrenaren bidez esaten ari garena zera da: berria inon entzun edo irakurri gabe, hala gertatu delakoan gaudela.

### ONGI ETORRI!/\*ONGI ETORRIA!

Agurra egitean *ongi etorri!* esan behar da, eta ez *\*ongi etorria!* edo *\*ongi etorriak!*, hauxe baita euskararen tradizioa. Hala ere, erabilgarriak dira ondorengo forma hauek:

**Ongi etorria** zara gurean (*izan* aditzarekin **-a** hartzen du).

**Ongietorria** eman diogu zuzendari berriari (*izena denean loturik idazten da*).

### ONTZI/\*UNTZI

Erabili *ontzi* hitza euskara batuan, sukaldekoa nahiz ur gainekoa adierazteko (*lurrunontzi, itsasantzi, aireontzi, gerraontzi...*).

### OPARI EGIN/OPARITU

Euskaltzaindiak *opari egin* forma hobesten du.

Erretiroa hartu behar duen lankideari erloju bat **egin diogu opari**.

### OPOR EGIN, JAI EGIN, MIN HARTU

Zenbaitetan, zalantza izaten dugu horrelako formak erabiltzen ditugunean. Erabili euskara batuan *opor egin* eta ez *\*oporrak egin, jai egin* eta ez *\*jaia egin, min hartu* eta ez *\*mina hartu*, etab.

### ORAINDIK, ARTEAN

Egokiagoa omen da lehen aldian *artean* eta orain aldian *oraindik* erabiltzea.

\*Lan hori egin zuen, **oraindik** alkate zela.

Lan hori egin zuen, **artean** alkate zela.

\*Zuzendari berria izendatuko duen dekretua ez du **artean** izenpetu sailburuak.

Zuzendari berria izendatuko duen dekretua ez du **oraindik** izenpetu sailburuak.

Kontuan izan, hala ere, *artean* geroaldirako ere erabil dezakegula.

Bihar, **artean** izenpetu gabe izango du.

### ORAINDIK ORAIN

*Oraindik orain* ez da *oraindik*. *Oraindik orain* esaten dugunean adierazten ari garena zera da: dena delako hori “duela oso denbora gutxi” gertatu dela. Beraz, honelako esaldiek ez dute zentzurik:

\***Oraindik orain** eskuz idazten ditugu administrazioko idazki asko.

**Oraindik** eskuz idazten ditugu administrazioko idazki asko.

**ORDENAGAILU/\*ORDENADORE**

Erabili euskara batuan *ordenagailu* edo *konputagailu*.

**ORDUAK**

*Hirurak* eta *laurak* izan ezik, gainontzekoak tarteko -r- hori gabe idazten dira: *seiak*, *zazpiak*, *zortziak*...

**ORDURA ARTE/ORDU ARTE/\*ORDURARTE**

Euskara batuan *ordura arte* edo *ordu arte* erabili.

**ORO HAR/\*OROHAR**

Euskara batuan *oro har* erabili.

**OROKOR/NAGUSI**

*Orokor/nagusi*. Gaztelaniazko *general* hitza adierazteko euskaraz *orokor* hitza erabiltzen dugu batzuetan: *hauteskunde orokorrak*, *greba orokorra*... Baina beste batzuetan hobe dugu *nagusi* hitza erabili: *Batzar Nagusiak*, *diputatu nagusia*...

*Nagusi/nagusien* bikoteari dagokionez, gehienetan nahikoa izaten da *nagusi* hitza.

\*Hori da Administrazioiko **eraikuntza nagusiena**.

Hori da Administrazioiko **eraikuntza nagusia**.

Bestalde, gaztelaniazko *generalmente*-ak adierazteko *orokorrean* baino hitz gehiago daukagu euskaraz: *askotan*, *sarri*, *gehienetan*, *oro har*... testuinguruaren arabera.

**OSAERA/\*OSAKERA**

Erabili euskara batuan *osaera*.

**OSATU**

*Osatu* hitzak ez du *constituir* adierazten beti. Izan ere, *constituir* horrek *osatu* edo *izan* adierazi baitezake.

\*Arau-hauste larri bat **osatzen** du.

Arau-hauste larria da.

**OSO**

Batzuetan ez digu balio izango *pleno* adierazteko.

\*Sindikatuak enplegu **osoa** eskatu du.

Sindikatuak **guztiontzako** enplegua eskatu du.

**OSOKO BILKURA**

IZOk udalbatzaren bilera esateko erabiltzen du.

Udalbatzak martxoaren bosteko osoko bilkuran hartu zuen erabakia.

**OSPATU (\*BILERA OSPATU)**

Aditz horrekin ondoen egokitzen direnak jaiak eta ospakizunak dira. Bilerak, txapelketak, lehiaketak, jardunaldi eta topaketak ditugunean hizpide *izan* edo *egin* aditzak erabiliko ditugu... eta zer esanik ez hiletak.

\*Terminologiari buruzko jardunaldia bihar **ospatuko** da.

Terminologiari buruzko jardunaldia bihar **izango** da.

# P

**PAPER (\*PAPER A JOKATU)**

Egitura hau ez da gehiegikeriaz erabili behar. Euskaraz baditugu bestelako esamoldeak hori adierazteko: *betebeharra*, *zeregina*, *lana*, *eginkizuna*, *betekizuna*, *zerikusia*... testu-inguruaren arabera.

\*Arkitektoak kontu horretan **jokatzen duen papera**.

Arkitektoak kontu horretan **duen zeregina**.

\***Zer paper jokatu** behar duzu zuk bilera horretan?

**Zein da zure eginkizuna** bilera horretan?

**PARAGRAFO/\*PARRAFO**

Erabili *paragrafo* euskara batuan, lege-testuetako artikuluen zati zenbakidunak izendatzeko, eta *lerrokada*, lerro-multzo arrunta aipatzeko.

**PARLAMENTARI/PARLAMENTARIO**

Izena denean erabili *parlamentari* edo *legebiltzarkide*.

\***Parlamentarioen** bileran parte hartuko du.

**Parlamentarien/Legebiltzarkideen** bileran parte hartuko du.

Izenondoa denean, berriz, erabili *parlamentario* edo, hobe, *parlamentu-* hitzarekin hitz elkartua osatu.

\*Talde **parlamentari** guztiek parte hartuko dute.

Talde **parlamentario/Parlamentuko** talde guztiek parte hartuko dute.

**PAUSO/PAUSU**

Ez dute esanahi bera. Hau da, *pausoa* eta *urratsa* parekoak dira. Aldiz, *pausua* besterik da: *atsedena* edo *geldialdia*.

Gazteek **pauso** (urrats) bizkorra dute.

Bileran hamarna minutuko bi **pausu** (geldialdi) egin genituen.

## PERIFRASIAK

Esanahi osoko aditz baten ordeztu *hitz abstraktua* + *aditz hutsa* erabiltzea da perifrasi. Komunikazioan perifrasiak traba besterik ez du egiten. Gainera, euskaraz egiten dugun perifrasi askok gaztelaniaren kutsua dute.

\*Udalak fitxatzeko **erlojuen aldaketari ekin dio** orain dela gutxi.

Udalak fitxatzeko **erlojuak aldatu ditu** orain dela gutxi.

\***Zubiaren eraikuntza egitea** da helburua.

**Zubia eraikitzea** da helburua.

## \*PERTSONALKI/\*PERTSONALIZATU

Sarritan bada hitz horiek saihesteko modua.

\***Pertsonalki** joango naiz.

\*Harreman **pertsonalizatuak**.

**Ni neu** joango naiz.

**Banan-banako** harremanak.

## PLANTEATU

Aditz hori erabil daiteke, baina, kontuan izan dezagun beste batzuk ere hor daudela: *adierazi*, *azaldu*, *sortu*, *aurkeztu*, *ezarri*, *mahairatu*...

\*Gure asmoa **planteatu** diegu.

\*Arazo bat **planteatu** zaigu.

Gure asmoa **adierazi (azaldu...)** diegu.

Arazo bat **sortu** zaigu.

## PNEUMATIKO/PNEUMONIA

Erabili horiek euskara batuan. Euskaltzaindiak *\*neumatiko* eta *\*neumonia* hitzak gaitzetsi egin ditu.

## POLIZIA-ETXE/\*KOMISALDEGI; KOMISARIA

Erabili *polizia-etxe* euskara batuan. Euskaltzaindiak *\*komisaldegia* hitza gaitzetsi egin du; eta *\*komisaria* baino *polizia-etxe* hobetsi. Gure ertzainenak *ertzain-etxeak* dira.

## POLTSA/\*BOLTSA

Erabili *poltsa* euskara batuan. *Burtsa* ere badago, baina akzio-merkatua adierazteko.

## POSIBILITATE/AUKERA

Hainbat esalditan *posibilitate* hitza erabiltzea baino "naturalagoa" da *aukera* erabiltzea.

\*Irabazteko **posibilitate** asko du.

Irabazteko **aukera** ederra du.

## POSIBLE DA/LITEKEENA DA

Zilegi da *posible* hitza erabiltzea, esate baterako, enfasia eta beste emateko. Adibidez, gutxien espero genuena gertatzean, zera esan ohi da: *Ez da po-si-ble!* Baina, ez gaitezen setatu behin eta berriz erabiltzen; baditugu-eta, beste aukera batzuk.

\***Posible** da etxea egitea.

\***Posible** da alkatea etortzea.

Etxea egin **liteke**.

**Baliteke** alkatea etortzea.

**Litekeena** da alkatea etortzea.

## PROZESU

Hainbat testuingurutan prozesu hitza sobera dago; izan ere, bada gauzak esateko beste modurik (*nondik-norako*, *-aldi*, *-bide* erabiliz).

\*Arazoak **prozesu luzea** dauka.

Arazoak **luze joko** du.

\*Espedientearen **prozesua**.

Espedientearen **nondik-norakoak/prozedura**.

## PUBLIKO

Zilegi da *publiko* hitza erabiltzea. Adibidez, *lehiaketa publikoa*. Baina ez ahaztu hainbat testuingurutarako badela gauzak esateko modu “naturalagorik” (*ageriko*, *jendaurreko*, *herri*, *denontzako*, *jende*, *ikusle...*).

\*Eztabaida **publikoa**.

\*Informazio **publikoa**.

**Jendaurreko** eztabaida.

**Herritarrentzako** argibideak.

## PUNTU/\* PUNTO

Erabili *puntu* euskara batuan.

### \*PUNTUAL

Bada hitz hori baino esanguratsuagorik: *jakin*, *konkretu...*

\*Gai **puntual** batzuk eztabaidatu ziren bileran.

Gai **jakin** batzuk eztabaidatu ziren bileran.

\*Arazo **puntualak** sortu dira.

Unean **uneko** arazoak sortu dira.

# S

## SAILBURUORDETZA/\* SAILORDETZA

Erabili *sailburuordetza* euskara batuan.

## SAIO/SESIO

Ez dute esanahi bera. Hau da, *saio* hitzaren esanahiak badu nolabaiteko lotura *saiatu* edo *jardun* aditzek dutenarekin. Aldiz, *sesio* besterik da: *iskanbila*, *kalapita*, *astrapala...*

Udaleko gaurko **saioan** (jarduna) egundoko **sesioa** (iskanbila) izan da.

## SLOGAN/ESLOGAN

Biak ere ondo daude.



**SOBERA/\*SOBERAN**

Erabili *sobera* euskara batuan.

**SUERTATU**

Aditz hau, berez, *jazo*, *izan*, *gertatu* eta *egokitu* aditzen sinonimoa izan daiteke: *zer suertatu zaie itsasoan galdu ziren arrantzaleei?* Dena dela, azken boladan, perifrasiak egiteko erabiltzen da, hau da, esanahi osoko aditz bat baztertu eta, bere ordeztan *izan* aditza erabiltzen da, batez ere, abstrakziora jotzeko.

\*Alderdi hori **irabazle suertatu da** hauteskundeetan.

Alderdi horrek **irabazi du** hauteskundeetan.

\*Lau hildako **suertatu** dira.

Lau hildako **izan/gertatu** dira.

**SUMATU/\*SOMATU**

Erabili *sumatu* euskara batuan.

**\*SUPOSATU**

Horren ordeztan erabil daitezke: *demagun*, *izan*, *ekarri*...

\***Suposa** dezagun gaur datorrela.

**Demagun (eman/jo dezagun)** gaur datorrela.

\*Horrek amaiera **suposatuko** du.

Hori amaiera **izango** da.

Horrek amaiera **ekarriko** luke.

Horrek berekin **dakar** amaiera.

**SUSMOA, SEINALE...**

Bileran agertuko den susmoa dauka/Bileran agertuko delako susmoa dauka.

Azpitarratutako esaldiak *susmo* hitzaren izenlagun dira eta, horregatik, izenlagunek izan ohi dituzten atzizkietako bat hartzen dute: *-eN* edo *-KO*, azken hau *-eLA* menderagailuari erantsita (*-eLAKO*). Ezberdindu egin behar dira esaldi horiek eta hurrengo hau:

Bileran agertuko **denaren** susmoa. (*Bileran egongo den pertsonaren susmoa*).

Gauza bera gertatzen da *seinale* hitzarekin:

Etorriko den **seinale** da.

Etorriko delako **seinale** da.

Etorriko denaren **seinalea** da. (*Etorriko den pertsona batek eramango edo egingo duen seinalea*).

Era berean, kontuz erabili ondorengo hitz hauek ere: *uste*, *beldur*, *esperantza*, *zurrumurru*, *hitza*, *kontua*...

## T

**-TEN/T(Z)EN (\*IRTETZEN, JARDUNTZEN)**

Kontuz bi hauekin, batez ere: *irten* aditzak *irteten* egiten du, eta *jardun* aditzak *jarduten*, *-n* amaieran daukaten aditz guztiek bezala.

**TEORIAN/\*TEORIKOKI**

Erabili *teorian* euskara batuan.

\***Teorikoki** erabakia zuzena da, baina praktikan ez.

**Teorian** erabakia zuzena da, baina praktikan ez.

**TESTUINGURU/\*KONTESTU**

Erabili *testuinguru* euskara batuan.

## U

**UDAL**

Hona hemen *udal* hitzarekin lotutako beste hitz batzuk nola erabiltzen dituen IZOk.

**Udala** da udalerria gobernatzeko eta kudeatzeko antolakuntza-organoa; hauek hartzen ditu bere baitan:

Alkatea

Alkateordea

Udalbatza

Gobernu-batzordea (ez da ezinbestekoa)

**Udalbatza**

Alkateak eta zinegotziek osatutako agintea. Udalbatzak aukeratzen du alkatea. Erabakirik garrantzitsuenak ere udalbatzak hartzen ditu.

**Udalerri**

Lurra, herritarrak eta antolakuntza dira udalerraren osagaiak.

**Udaletxe**

Hitzak esaten duen legez “etxeari” berari deritzo udaletxea. Udaletxean bildu ohi da udalbatza, eta alkateak ere han izan ohi du bulegoa.

## UKITU/\*IKUTU

Erabili *ukitu* euskara batuan.

## UKO EGIN (\*UKATU DIRA)

Aditz honek NORK (eta zenbaitetan NORI ere bai) eskatu ohi du.

\*Epaituak deklaratzera **ukatu dira**.

Epaituek **uko egin diote** deklaratzeari.

## ULERTU (\*ULERTUKO DA)

Gaztelaniaren kalkotzat jo daitezke esaldi hauek:

\*Berandu etortzea huts larria dela **ulertuko da**.

Berandu etortzea huts larritzat **joko** da.

\*Bilera igandean egokitzen bada, astelehenean egin behar dela **ulertuko** da.

Bilera igandean egokitzen bada, **horrek esan nahi du** astelehenean egin behar dela.

## UTZI/\*ZESATU

Gaztelaniaz “Ha cesado en el cargo” esan ohi dena, euskaraz *utzi* aditza erabiliz egin daiteke.

Karguari **utzi dio**.

Kargua **utzi du**.

## Z

## ZABALDU (ESPEDIENTEA EGIN/\*ESPEDIENTEA ZABALDU)

Gaztelaniaren kalkotzat jo daiteke esaldi hau:

\*Errudunari espedientea **zabalduko** zaio.

Errudunari espedientea **egingo** zaio.

## ZAIN/\*ZAI

Erabili *zain* euskara batuan, bai eta haren bidez sortutakoetan ere (hitz elkartuetan nahiz eratorrietan): *artzain*, *ertzain*, *atezain*, *gotzain*, *itzain*, *diruzain*, *erizain*... eta *zaintzaile*, *zaindegi*, *zaindari*, *zaintza*, *ertzaintza*, *abeltzaintza*, *erizaintza*...

## ZEHAR (\*MENDIAREN ZEHAR)

Erabili *mendian zehar* edo *menditik zehar*; eta ez *mendiaren zehar*, ez baita zuzena.

Zilegi da denborari buruzkoetan ere *zehar* erabiltzea.

Zaila dela gure historian **zehar** antzekoa aurkitzea.

Baina, ondoko esaldiek, adibidez, ez dirudite oso “naturalak”:

\*Historia osoan **zehar** ez da halakorik gertatu.

Historia **osoan** ez da halakorik gertatu.

\*Egun guztietan **zehar** jarriko da jendaurrean.

Egun **guztietan** jarriko da jendaurrean.

### \*ZENTRATU

Horren orde, beste batzuk erabil daitezke.

\*Ez ibili adarretatik eta **zentratu zaitez**.

Ez ibili adarretatik eta **jo ezazu harira**.

\*Eztabaida kiroldegi berrian **zentratu zen**.

Eztabaidak kiroldegi berria **izan zuen mintzagai**.

Eztabaida kiroldegi berriari **buruzkoa izan zen**.

Eztabaidagaia kiroldegi berria **izan zen**.

### ZENTZU/NORABIDE/NORANZKO

Ez dute esanahi bera. Hau da, *zentzu* hitzak hiru esanahi hauek izan ohi ditu:

1. Zuhurtasuna. 2. Hitz, esaldi edo testu baten esanahia edo adiera. 3. Konortea.

Alkateak **zentzuz** (zuhurtasuna) jokatu du.

Idazkariak gaizki hartu zuen zinegotziaren **hitzaren zentzua** (esanahia).

Orduan, zauritua **zentzu gabe** (konortea) erori zen, hilda bezala.

Aldiz, *norabide* eta *noranzko* hitzak errepideetakoak izan ohi dira.

Bilborako **norabidea** Amaran hartzen da.

Errepide arruntak bi **noranzko** izan ohi ditu: bata joateko, eta bestea etortzeko.

### -ZIO/\*-ZINO, -ZIÑO, -ZIÑO

Euskaltzaindiak *-zio* atzizkia hobetsi du: *administrazio, definizio, debozio...*

### ZORIONAK (\*ALKATEAREN ZORIONAK DIRA)

Urtebetetzea adierazteko ez da *zorionak* erabili behar.

\*Alkatearen **zorionak** dira.

Alkatearen **urtebetetzea** da.

### ZUONTZAT GUZTIONTZAT (\*ZUEN GUZTIONTZAT)

Horrelako egituretan biak deklinatu behar dira, plural hurbila ere jarririk.

\*Zuen **guztiontzat** ekarri dut.

Zuontzat **guztiontzat** ekarri dut.

### ZUZENDU

Aditz honekin egindako zenbait esaldi gaztelaniaren kalkotzat jo daitezke; edo, behintzat, ez dirudite oso “naturalak”.

\*Telegrama **zuzendu** zion.

\*Alkateei **zuzendutako** ikastaroa.

Telegrama **bidali** zion.

Alkateentzako ikastaroa.



**BIBLIOGRAFIA**

- AEK: Akabo zalantzak! Euskal gramatikaren inguruko argibideak. Bilbao: AEK, 1992.
- ARRASATE, Manu. Euskarazko albistegietarako esku-liburua. Bilbao: EITB, 1992.
- EGUNKARIA. Estilo liburua. Andoain: Egunkaria, 1995.
- ETXEBERRIA, J.L. Euskera jatorraren ildotik. Arrate Irratia. 1993.
- EUSKALTZAINDIA. Euskaltzaindiaren arauak. Bilbo: Euskaltzaindia, 1994. urtetik aurrera argitaratutako fitxak.
- GARATE, Gotzon. Erdarakadak. Bilbao: Mensajero, 1998.
- HAEE. Argiro idazteko proposamenak eta teknikak. Oñati: HAEE, 1997.
- HAEE. Hizkera argiaren bidetik. Oñati: HAEE, 1994.
- HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. Kontuan izan!! Akatsak zuzentzen. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2000.
- SARASOLA, Ibon. Euskara batuaren ajeak. Irun: Alberdania, 1997.
- ZUBIRI, Ilari; ZUBIRI, Entzi. Euskal gramatika osoa. Bilbao: Didaktiker, 1995.

**ALDIZKARIAK**

- Administrazioa Euskaraz. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.
- DEL OLMO, Karlos; Senez, 21. Alea: Oratoria, akatsak, itzulpengintza eta kalkoak.

**HIZTEGIAK**

- ELHUYAR. Hiztegia. Usurbil: Elhuyar, 1996.
- ELHUYAR. Hiztegi entziklopedikoa. Usurbil: Elhuyar, 1993.
- SARASOLA, Ibon. Euskal hiztegia. Donostia-San Sebastián: Kutxa fundazioa. 1996.
- MITXELENA, Luis. Orotariko Euskal Hiztegia. Bilbo: Desclée De Brouwer: Mensajero.







